

Arrasate

P R E S S

1999ko
urriak 22
468. zenb.



Agur...

...agur!

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • KULTURA ELKARRIZKETA: ANTONIO MURILLO

EUREREN IKUSPUNTUTIK: BEÑARDO KORTABARRIA • KIROL GAIA: SAIOAKO KARATEKAK

LASAITZEKO MASAJE IKASTAROA

(hastapena)

Garai txarretan lasaitzen ikasi.
Erabateko osasunarentzat lasaitasuna da
altxorrik handiena.

GAI ZERREDA:

Informazio orokorra

- Nerbio sistema • Larritasun sintoma orokorrak • Musika eta lurrina

Nork bere burua lasaitzeko teknikak

- Masajea • Automasajea • Lasaitzea eta haurrentzako masajeak

(Haurrei eta gazteei lo egiten laguntzen die, azterketa garaietan batik bat)



Egunak: Azaroaren 6an eta 13an
Ordua: 10:00-13:00 eta
15:00-20:00
Tokia: Mertxe Masaiak,
Kale zaharra, 42 behea
Emalea: Mertxe Alcalá
Argibideak: 943 78 01 71
telefonora deituta
(10:30-12:30 eta
15:00-21:00)

Plaza mugatuak



Solariuma



Hidromasajea



Lurrin bainuak



Masajea

ZERBITZUAK

Masaje terapeutikoa

- Giharreko tentsioak
- Artrosiak
- Lunbagoa
- Ziatika
- Tortikolisa
- Zaintiratuak
- Tendinitisa
- Idorreria
- ...

Zelulitiaren kontrako masajea

- Soberan dituzun zentimetroak kentzeko

Masaje neurolasaigarria

- Estresa
- ...

Kirol masajea

- Ariketen aurretik eta ondoren

Kirolak eragindako minak osatzea

Oinen tratamendua hidromasajearen bitartez

Zirkulaziorako masajea

- Barizeak
- Hanka nekatuak
- Nekea orokorrean
- ...

Erditu aurreko masajea

- Sabelean pitzadurarik ez izateko
- Zirkulazioa hobetzeko
- Hanketako nekea eta barizeak ekiditzeko
- ...

Erditu ondorengo masajea

- Sabelaldea bere lekura itzultzeko

Langabezia, ezberdintasun sozialaren iturri

Behin eta berriz ari gara entzuten han eta hemen gauzak ondo daudela, eta hori, jakina, termino ekonomikotan neurtzen da: gure ekonomia aurrerapauso garrantzitsu eta etengabeak ematen ari dela, teknologia berriek onura handiak ekarri dizkigutela, aisiarako gero eta denbora gehiago dugula, gure askatasun pertsonalak gero eta espazio handiagoa duela.

Islatzen al da errealitatean hori guztia?

Gutako batzuk ez gara gaizki bizi, nahiz eta askotan gehiago nahi, ezta? Baina askotan pentsatu izan dut gure ingurune hurbil hau toki pribilegiatua dela eta hemen eta han jasotako iritziekin baita konturatu ere egoera hau ez dela orokorra, ezta Euskal Herrian bertan ere.

Lana izatea bihurtu da gure bizitzaren oinarri. Baina nork salbatzen



Karmele Perez

gaitu langabeziaren itzale-tik? Nork ez dauka beldurrik teknologia berriek edo globalizazioak edo gaur egun mundua astintzen duen ekaitzetako batek hondoratu ote duen/ote gaituen? Izan ere, teknologia, ideia edo iraultza berriek ez baitituzte guztion aisialdia edo askatasun espazioak zabaldu, ez behar bada txarrak direlako, gaizki

erabili direlako baino; aitzitik, langabezia areagotu egin da, bazterkeria soziala areagotu egin da, han eta hemen ezberdintasunak gero eta nabariagoak dira. Eta horrez gain, dagoeneko lana ez da beharrezkoa dirua ugaltzeko, gaur egun kapitalak inbertsio espekulatiboetarako jotzen

baitu gero eta gehiago.

Datu konkretuetara etorrira, hegoaldeko lau probintzietan 180 mila langabe inguru daude orain. Enpresetako irabaziak langileen

soldatak baino hogeita bost aldiz gehiago hazi dira, baina langabeziak ez du ia behera egin. INEMek horietako 50 mila ingururi ordaintzen die langabezi prestazioa eta beste 130 mila babesik gabe uzten ditu. Baina, dirudienez, INEMen beraren gastuak Barne Produktu Gordinarekiko asko murriztu dira eta horren ondorioz Autonomia Erkidegoan 50 mila milioiko etekina izan dute. Nola uler daiteke hori? Pobreziaren aurkako neurri bereziek 16 mila familia hartzen dituzte soilik EAEn, eta bakoitzak 46 mila pezeta jasotzen ditu hilean. Orain arte bazterketa sozialaren aurka ezarritako legeek emaitza horiek ekarri dituzte.

Eskubide Sozialen Gutunaren aldeko biltzarra egin berri da. Bertan aipatu dituzte aurreko datu horiek guztiak, eta salatu ere salatu dute arazo hau. Izan ere, ez du zentzurik irabaziak gero eta handiagoak izateak, horrek ez badu herriarengan eta herritarrengan islarik. Eta zoritxarrez, gero eta gehiago, etekin horiek batzuegan eragiten dute soilik, ez guztiongan. ■

“Dagoeneko lana ez da beharrezkoa dirua ugaltzeko”

“BBV eta Argentariaren arteko bategiteak ez du arazorik eragingo Arrasaten”

Jon Arriaran

45.363

langile ditu MCCk

MCC Berriak jakitera eman duenez, Arrasateko kooperatiba korporazioak 45.363 langile zituen joan den ekainean. Gehienak banaketa taldean zebiltzan, Eroskin alegia (21.646). Industria Taldeak 21.151 langile zituen, Finantza Taldeak 2.061 eta Ekin-tza Korporatiboak 505.

ITURRI ONETIK

Herri komunikabideak aztergai

Asier Aranguren kazetari aretxabaletarrak amaitu berri du doktore tesia: *Euskarazko Komunikabide Lokalak Euskal Herrian*. Tesiak dituen 600 orrialdeetan zehar, herri komunikabideak aztertzen ditu luze eta zabal.

Prensa idatzian bi kasu aztertzen ditu denen gainetik: *Arrasate Press* eta Nafarroako *ttipi-ttapa*. Telebistetan, Arrasate Telebista. Eta irrati-tan, Oñati Irratia.

Hil honen bukaeran defendatuko du tesia, Leioan. Epaimahaian honako doktore hauek izango ditu: Ramon Zallo mahaiburu, Edorta Arana, Jose Ignacio Armentia, Jon Sarasua eta Mirian Urkia. Bi herrikide eta mondragoetar bat izango ditu, beraz, aurrez aurre.



ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñatorra kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89 E-mail: arrasatepress@euskalnet.net Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Leguntzaila: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Manjé Dozgracias, Ubaire Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroisbe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Administrazioa:** Maite Uriolabeitia (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Maite Trubuelo. **Asteburuetako berriemakileak:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 3.400. **Laguntzaileak:** 1124/86. ISSN: 0214-4654. **Frankoeko kontzertatua.** **Inprimategia:** Ger-tu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizirik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Monika Belastegi.



Arrasateko Udalerriaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailearen laguntza

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 22**
 • Zabala, Zarugalde
- Larunbata, 23**
 • Ruiz, Maalako Errabala
- Igandea, 24**
 • Morales, San Andre
- Astelehena, 25**
 • Azkoaga, Ferrerías
- Astearte, 26**
 • Azkoaga, Iturriotz
- Asteazkena, 27**
 • Korkuera, Musakola
- Osteguna, 28**
 • Irizar, Erguin

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Igalatorioa 943 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara 943 76 55 76

DYA
 Antzuola 943 78 71 57

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) . . . 943 03 53 00
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 53 52
 • Kanpoko kontsultak: . . . 943 03 53 11
 • Fax zenbakia: 943 03 05 14
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako anbulantziak 943 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza
 Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) . . . 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) . . 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 943 79 12 22
 PESA. 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia
 Monterron 943 77 01 05

Irratia
 Arrasate Irratia 943 79 58 77

GIZA BAZTERKETARIK EZ

Orain bi urte, 82.000 sinaduraren eta mota ezberdinetako hainbat kolektiboren babesa izan zuen Eskubide Sozialen Gutuna aurkeztu zen Gasteizko Parlamentuan. Nafarroako Parlamentuan ere beste gutun bat aurkeztu zen, nahiz tramitazio bakoitzak bere erritmoa izan duen.

Nafarroan eztabaida modu faltzuan itxi da eta Eusko

Legebiltzarrean udazken honetan ekingo zaio eztabaidari.

Bestalde, ezin dugu ahaztu pasa den maiatzaren 21ean sindikatuek 35 orduko lanastea eta soldata sozialaren alde deitutako greba orokorrak izan zuten oihartzun zabala.

Parlamentuan gutuna eztabaidatzen hasi behar dela aprobetxatuz, Giza Bazterketaren Aurkako Asanblada Nazionalak (hainbat giza taldek eta sindikatuk osatzen duena), txirotasunaren aurkako ibilaldi bat antolatu du Eskubide Sozialen Gutuneko aldarrikapenei bultzada berria emateko asmoarekin.

Ibilaldi honek 15 egun iraungo du eta Euskal Herriko eskualde garrantzitsuenak zeharkatuko ditu, baita Leintz bailara ere.

Ibilaldiari babesa emateko eta giza bazterketaren gaia lantzeko, plataforma bat eratuko da herrian. Hau dela eta,

alderdi politiko, sindikatu, emakume eta gazte talde... eta interesaturik egon daitekeen edozein gizabanakori plataforman parte hartzeko gonbita egiten diogu.

Baita datorren asteartean, hilak 26, arratsaldeko 19:00etan Monterroneko hitzaldi aretoan egingo den bileran parte hartzeko deia ere.

Arrasateko Esklusio Sozialaren Aurkako Plataforma

Telefono berriak

Arrasate Komunikabideak elkarteak telefono berriak ditu. Hauek dituzue zenbaki berriak:

- Arrasate Press 943 71 25 11
- ATB 943 71 23 93
- Administrazioa 943 71 23 90
- Publizitatea 943 71 23 91

Siki Siki

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
 jatetxea

Garagartza auzoa
 Tel.: 943 79 76 58
 ARRASATE

M

MEMESA
 Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Zer deritzozu postetxeak izan zuen erasoaz?

Joan de ostegunean talde batek sua eman zion postetxeari.



David Caballero
(20 urte)
Ikaslea

Ez dakit, ez nekien ezer. Baina ez zait ondo iruditzen. Ez da egokia garai honetan.



Ana Aranzabal
(32 urte)
Irakaslea

Oso gaizki iruditzen zait. Arazoak daudela denok dakigu, baina ez dut uste gauzak apurtzen ezer lortzen denik.



Nekane Diaz
(37 urte)
Etxekoandrea

Ez dut uste honelako ekin-tzak inori ondo irudituko zaizkionik. Basakeriak dira, ez dute inongo logikarik.



Jesus Mari Ezkurra
(48 urte)
Langilea

Ez nago ados horrelako ekin-tzekin. Ez dute ezer konpontzen.



Pili Irigoien
(40 urte)
Langilea

Ez dut uste ondo dagoenik. Horrela ez dira gauzak konpontzen.




Mari Jose Carmona
(32 urte)
Langilea

Gehiegikeria hutsa. Badi-rudi ez dakitela nola pasatu denbora. Ez zait ondo iruditzen.



Felix Martinez
(28 urte)
Langilea

Lotsagarria iruditzen zait. Gainera, ni postetxearen gainean bizi naiz.



Jacinto Garcia
(41 urte)
Langilea

Gaizki iruditzen zait. Ez da logikoa horrela erasotzea postetxe bat edo beste edozein eraikin publiko. Ez da komenigarria.

Sagardotegia

ITURRIETA

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 55 85
ARAMAIO

ONTZI DENDA

Domusantu egunerako
hemen aurkituko dituzu
lora naturalak

Kurtze txiki, 2 beheka (San Andres) • Tel.: 943 79 73 90

USTEAK USTE

Zaborrak kalean

Udal arduradunak aztoratuta dabilta, jende askok etxeko zaborrak tokatzen ez diren egun eta orduetan ateratzen dituelako kalera.

Udaltzainek argazkiak atera omen dituzte eta kulpanteen izenak jakinarazteko mehatxua ere egin dute.

Bide horretatik segituz gero, gerra antzu batean sartuko dira. Besteak beste, zaborrak biltzeko oraingo sistemak eragiten dituelako arazoak, ez jendearen jarrerak. Izan ere, zer egin behar du zaborrak jaso bezperan etxetik alde egin behar duenak: etxean gorde?

Bi akats nabarmen ditu mankomunitateak zaborrak biltzeko eratu duen sistemak: bat, kamioiak ez dira egunero pasatzen; bi, toki gehienetan ez dago zakarrontzirik.

Durungaldeko Mankomunitatean, aitzitik, kamioiak egunero pasatzen dira eta ia kale gehienetan daude zakarrontziak. Etxetik irten behar direnek lasai asko bota dezakete zaborra zaborrontzian eta udaltzainek ez dute errudunen bila ibili beharrik.

Hor ere ikastea tokatzen zaigu.

Joxe Aranzabal



Elhuyar pret à porter

* **Beñardo Kortabarria**

Hogeita bost urte zientziaren dibulgazioan, erraz esaten da; bete, berriz, eguneroko lanaren bidez, ezin bestela. Elhuyar Elkarte bera, oso-oso gaztea zen dibulgazio lanari heldu zionean, bi urte besterik ez zituen eta. Gaztea izanagatik, elkarte, gogotsua, eta ilusioz bete ere bazen; horrela, baliabide gutxirekin baina borondate handiarekin, Elhuyarrek kaleratutako lehen dibulgazio lanak *Elhuyar* aldizkaria 1974. urtean ikusi zuen argia. Azal horixkadun aldizkari hark oinarritzko zientziaren berri euskaraz ematea zuen helburu; zuri-beltzean eta oso ilustrazio gutxirekin argitaratzen zen, urtean lau bider. 1985. eko abenduan *Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkariaren 0 alea atera zen kioskoetara, gaur egungo aldizkariaren oinarritzko itxurarekin, eta zientzia eta teknika gaiak gizarteratzeko helburuarekin. Aldizkari berria sortzearekin batera, hasierako *Elhuyar* aldizkaria ikerketak plaza-

ratzeko topaleku bihurtu zen. Duela hiru urte, 1996an, argitaratzeari utzi zitzaion.

Oraingoa ez da hilabete-kariari egiten zaion aldaketa sakon bakarra, aurrez beste batzuk egin baitzaizkio. Alegia, *Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkaria, denbora berrietara egokituz joan da.

Aurrera egin eta garai berrietara egokitzeko ahaleginaren aldetik ulertu behar dira *Elhuyar Zientzia eta Teknika* aldizkariaren berrikuntzak. *Elhuyar* aldizkariak berrikuntza estetikoak eta edukizkoak erakutsiko ditu hile-ro-hilero. Estetikari dagokionez, mantxeta berritua, tipografo modernoagoa, kolore

gehiago, alderdi grafiko indartsua, espazio zurien lasaitasuna, aldizkariaren ordena logikoagoa, eta gaien zatiketa ugariagoarekin dator udazkeneko ale berritua. Edukari dagozkion aldaketak ere —estetikoak bezala— asko dira: titularrak biziagoak izango dira eta artikulua zatikatua goak. Iritziei toki gehiago emango zaie. Alero-alero punta-puntako gairen bat sakon aztertuko da, eta lehen mailako zientzilariek elkarrizketatuko dira. Bertako ikerkuntzaren gaurkotatzearekin gehiago erreparatuko zaio. Berri laburren kopurua bikoiztu baino gehiago egingo da, batez beste 11 orrialde hilero—40tik gora berri labur—.

Aipatutakoak gutxi balira, sail berriak ere irakurri eta ikusi ahal izango dira aldizkari eraberrituan: elikadura osasuntsurako aholkuak, zientzia efemerideak, prentsan agertutako gaurkotatze handiko berrien ondorioak...

Aldizkariako eraldaketaren azkenak, aparteko paragrafoa merezi du: *Gaztelhuyar*, zientzia eta teknika, gazteen eskura. Informazio interesgarri eta bitxietan oinarritutako gehigarria. Kolorez eta irudiz jantzitako orrialdeak, gazteei zientzia ilun gerta ez dakien, gaien azalpen argi-argiekin. *Gaztelhuyar* gehigarri izaerarekin jaio bada ere, hazi, eta baliteke bere kabuz ibiltzen ikastea. Denborak esango du hori.

**“
Gazteluyar gehigarri
izaerarekin jaio bada ere,
baliteke bere kabuz
ibiltzen ikastea
”**

*Elhuyar aldizkariako erredakzio buru

 **MARKO-JARTZEAK**
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

HIES
EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.
Tel.: 943 79 26 99

Arrasate

LANAK

OTALORAN

Pilotalekua egiteko lanak.

SANTA TERESAN

Santa Teresa eta Hondarribia kaleen artean saneamendu lanek segitzen dute.

ZALDISPEN


Oinezkoen pasabideko lanak.

OBENERREKAN

Gernika kaleko oinezkoen pasabidea berritzeko lanak.

MARKULETEN


Urbanizazio lanak.



Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua




OSTIRALA 22

Euria egingo du tarteka eta tenperaturak behera egingo du. Haizeak ahul joko du hego-ekialdetik.



LARUNBATA 23


Lainoak nagusituko dira zeruan eta euria egingo du tarteka. Haizeak hego-ekialdetik joko du.



IGANDEA 24

Temperaturak gora egingo duen arren, euria egingo du tarteka. Haizeak ahul joko du.

Ilargia



Ilbete

Urriaren 24an, igandean, ilargi beteak izango dugu.

Mezak

Parrokia

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (erdaraz)
19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean:
11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres

Ostiralean
18:30 (Otoitz ordua)

Larunbatean
18:30 (Bezpera abestiak)
19:00 (elebiduna)

Igandean
10:00 (erdaraz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)


Santa Teresa

Larunbatean
19:00 (elebiduna)

Igandean
10:30 (erdaraz)
11:30 eta San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%66,3



Urteurrena

Orain dela urtebete *Arrasate Pressen*:

- Ainhoa Guenaga irundarra izendatu zuten Udalteko idazkari.
- Julio Anguita Arrasaten izan zen.
- Produkzio Garbia txostena aurkeztu zuen Ormazabalek bailarako hainbat enpresekin batera.
- Mari Jose Gilek urrezko domina irabazi zuen Durangaldeko maratoi erdian.

22
ostirala

23
larunbata

■ ZINEA

Celos, Alai zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

■ KONZERTUA
GAZTETXEAN

Servicio Secreto eta *Asto Pituak*, azken hauek iruñe-
rrak, arituko dira Gaztetxean,
22:00etatik aurrera.

■ JAM ARETOAN

Berri txarrak eta *Las Ratas*
taldeek kontzertua eskainiko
dute 22:00etan, Bergarako
Jam aretoan. Sarrera 700 pta
kostako da. Kontzertua Jam
aretoaren urteurrena ospatze-
ko antolatu dute.

■ ZINEA

Un papá genial,
17:00etan, 19:30ean eta
22:00etan, Alai zineman.

■ BARAZKIZALEEN
SUKALDARITZA

Ekin emakume taldeak
antolatuta, barazkiak presta-
tzen ikasteko saioa egingo
dute 10:00etan AEDren egoi-
tzan. Ikastaroak jarraipena
izango du hurrengo larunba-
tean.

■ ANTZERKI
EMANALDIA

Ados antzerki taldeak *Des-
perrados* antzezlan eskaini-
ko du gaueko 22:30ean, Amaia
antzokian. Sarrera 1.000 pta.
Gazte txartelarekin 800 pta.

■ KONZERTUA
GAZTETXEAN

Sindrome del descontrol
punki aguraindarrak eta Bil-
boko *Trauma* metal taldeak

arituko dira Gaztetxean
22:00etatik aurrera.

■ JAM ARETOAN

Jam aretoaren urteurrena
ospatzeko *Betagarri* eta *Dikers*
taldeek kontzertua eskainiko
dute 22:00etan. Sarrera 700 pta
kostako da.

■ HAIZE ZENTRALAREN
AURKA

Elgeako haize zentralaren
aurkako mendi ibilaldia anto-
latu dute hainbat ekologista eta
mendi taldek. Eskoriatzatik
Aretxabaletara abiatuko dira
eguerdiko 12:00etan, Esko-
riatzako plazatik.

■ PERRETXXIKO
LEHIAKETA

Arrasateko Ikastolak IX.
Perretxiko lehiaketa antolatu
du. Arrasateko 10-15 urte
bitarteko haurrek hartuko dute
parte. Perretxiko aurkezpena
10:00-14:00 bitartean izango
da. Sari banaketa, berriz,
13:30ean.

24
igandea

■ ZINEA

Un papá genial,
17:00etan, 19:30ean eta
22:00etan, Alai zineman.

■ MUGARRIZ MUGARRI

AEDk antolatutako
"Mugarritz mugarri... Arrasate
ezagutzen" egitarauaren
barruan, 08:30ean Arbolape-
tatik aterako dira. Udala eta
Meatzarreka auzoko ingurue-
tan ibiliko dira hainbat "harri
bitxi" ezagutzeko ahalegin
sendoan.

■ JAM ARETOAN

Lagwagon, *Bouncyng*
Souls eta *Avail* taldeak aritu-
ko dira Bergarako Jam areto-
an iluntzeko 21:00etatik aurre-
ra. Sarrera aurrez 2.000 pta eta
bertan 2.300 pta kostako da.

X Bataioak, jaunartzeak,
enpresa bazkariak eta
lagunartekoak

X Karta eta menu
berezien zerbitzua



DENBORALDIKO PLATERAK, GIRO ONENEAN

BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA

Tel.: 943 79 24 58

LAN ESKAINTZAK

Arrasateko Udalak aldi baterako zerbitzuak
betetzeko lan-poltsa hauek osatu nahi ditu:

- Udaltzainen lan-poltsa
- Elektrikarien lan-poltsa
- Iturgingen lan-poltsa
- Jai/kultura laguntzaileen lan-poltsa

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke

Eskaera aurkezteko epea: 99/11/12rarte, berau barne.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

25

astelehena

■ ZINEA

Un papá genial, Alai zine-
man, 19:00etan eta 21:30ean.

27

asteazkena

■ KONTSUMITZAILEEI
HARRERA

“Laguntza Teknikoko zer-
bitzua: zer egin behar dugu?”
hitzaldia eskainiko du Rocio
Salcedo abokatuak, Monte-
rroen, 16:30ean. Hitzaldia
Kontsumo gelak antolatatu du.

26

asteartea

■ ZINEA

Un papá genial, Alai zine-
man, 19:00ean eta 21:30ean.

■ KONTSUMITZAILEA
HIZPIDE

Kontsumo gelak “Kon-
tsumitzailea eta bidaiak: ego-
ki prestatzen” hitzaldia anto-
latu du. Hizlaria Irantzu Berro-
txoa abokatua izango da. Mon-
terronen, 16:30ean.

■ GIZA BAZTERKERIA

Arrasateko Giza Bazter-
keriaren Aurkako Taldeak
bilera egingo du Monterronen
19:00etan.

■ MUS TXAPELKETA

21:00etan Leintz elkarte-
an afaría eta mus txapelketa
izango dute Roman Lopezen
ikasleek. Izena emateko erdi-
ko kaleko Muruamendiaraz
gozodendara jo behar da, igan-
dea baino lehen.

28

osteguna

■ ZINEA

*Mensaka, paginas de una
historia*, filma eskainiko dute
Amaia antzokian, 21:30ean.

■ JABEGOA MINTZAGAI

Kontsumo gelak antola-
tutako “Etxe jabeen komuni-
tateak eta legearen aldaketa:
eraginik izango du gure auzo-
an?” hitzaldia eskainiko dute
Lia Altuna eta Begoña Las-
agabaster abokatuak. Saioa
Monterronen, 16:30ean.

■ MUS TXAPELKETA

21:00etan Leintz
elkartean afaría eta mus
txapelketa izango dute
Roman Lopezen ikasleek.
Izena emateko erdiko
kaleko Muruamendiaraz
gozodendara jo behar da,
igandea baino lehen.

■ TXIKILANDIAKO
BEGIRALEAK

Txatxilipurdik 2000.
urterako Txikilandiarako
begiraleak behar ditu.
Interesatuok lehenbailehen
jo Txatxilipurdiren egoitza-
ra garaiz ibili.

■ ARGAZKI
ERAKUSKETA


“Gazteak eta 2000.
urtea” argazki lehiaketan
parte hartu duten lanak
ikusgai daude Monterro-
nen, urriaren 30a bitartean.

■ JOKIN ZAITEGI

AEDk antolatzen duen
Jokin Zaitegi itzulpen
laburren sariketa hasi da
dagoeneko. Lanak edozein
hizkuntzatatik itzuliak izan
daitezke eta urriaren 29a
baino lehen aurkeztu
beharko dira AEDn. Lehen
saria 200.000 pezetakoa
da. Informazio gehiago,
943 77 12 28 zenbakian.

■ DANTZA IKASTAROA

Ekin Emakume taldeak
dantza ikastaroarekin
segituko du astelehenean.
Saioa AEDren egoitzan
izango da, 16:45ean.
Garagartzako auzoetxean
16:45ean izango da.



Zaldibarko futbito txapelketa

Bonba Taldiek jakitera eman digunez, sei lagunen bila ari dira aurtengo Zaldibarko futbito txapelketa antolatzeko. Hauek aurkitu ezean, eurek behintzat ez dutela txapelketa antolatu esan digute.

Garai batean Maritxu Kajoi ostean hasten zen txapelketa hau, iaz hartu zuen antolatzeko ardura Bonba Taldiek.

Deialdia argia da: “jendea behar dugu. Norbaitek interesik izango balu, mesedez Irati tabernatik pasatu! Bestela ez da txapelketarik egingo. Eta hori ez du inork nahi, ezta?”

Irakurketa gomendioak Eskoriatzatik

Eskoriatzako Haur Liburu Mintegia dagoeneko hasi da urteroko lanarekin. Ohi bezala, aurten kalera-tu diren euskarazko liburu guztiak irakurri eta gida bat aterako du urtebeteren ostean.

Honen helburua, bate-tik, mintegian parte hartzen dutenen literatura presta-kuntza indartzea da, eta bestetik, kanpora begira, irakurketa eskaintzea. Horretarako, lehen aipatu dugun moduan, gida bat kaleratzen da mintegi bakoitza amaitzean. Urte-beteren ostean, beraz.

1998KO GIDA

1998. urteari dagokion gidak, orain hiru aste ikusi zuen argia. Laster, EAE-ko eskola guztietan izango da, beraz.

Ehun liburu baino gehiagoren zerrenda dakar aurtengo gidak. Haur eta gazteen adinen arabera banatuta, gomendatzen diren liburuak daude zerrenda honetan.

Lau zerrenda daude guztira: bata, zerrenda orokorra, luzeana; bestea, liburu gomendagarrien zerrenda; hirugarrenean liburu oso gomendagarriak aipatzen dira laburpentxo eta guzti; eta, azkenik, zerrenda berezia dago. Bertsolaritza, poesia eta antzeko atalak lantzen dituzten liburuak daude hor.

Eskoriatzako Haur Liburu Mintegia edonorentzat dago irekita. Hala ere, Nerea Alzola mintegiko kideak adierazitakoaren arabera, euskaltegieta-

ko langileek, irakasleek eta liburuzainek parte hartzen dute.

IRAKURKETA BEREZIA


Ohi duten moduan, urte bakoitzean argitaratu diren euskarazko liburuak hartu, eta mintegiko partaideek irakurri egiten dituzte. Modu berezi batean egiten da, gainera, irakurketa. Liburu bakoitza pertsona batek baino gehiagok irakurtzen du. Ostean, elkarren artean liburuari buruzko iritziak trukatzeko dituzte. Modu honetan, iritzi horrekin adostasuna lortuz gero eta iritzi hori ona bada, besterik barik, gero aterako duten gidan sartuko da, liburu oso gomendagarri moduan. Azken zerrenda honetan liburu bakoitzari buruzko laburpentxo bat ere agertzen da.

Ostera, adostasunik egon ezean, irakurleen zerrenda zabaldu eta nolabaiteko adostasuna lortu ostean, liburu hori zerrendan sartu edo kanpoan geratuko da.

Hamabostean behin elkartzen da irakurle talde berezi hau iritziak trukatzeko.

Liburu bat aukeratzeko orduan kontuan izaten dituzten irizpideak hiru dira: Batetik, idazkeraren edertasuna; hizkuntzaren kalitatea, bestetik; eta istorioaren kontakizuna azkenik.

Hortxe dago zerrenda, hortxe aukera. Beraz, ez dago ez irakurtzeko aitzakiarik.



Liburu oso gomendagarriak

- **2 urtetik aurrera:** *Egunon, Gabon*, C. O'Mara: (TTartalo).
- **6 urtetik aurrera:** *Jonas eta Hozkailu Beldurtia*, Juan Kruz Igerabide: (Aizkorri).
- **8 urtetik aurrera:** *Ahate Pobrean Urmaela*, Casalderey, Fina: (Edebé-giltza).
- **10 urtetik aurrera:** *Jontxuren Fragata*, Asun Balzola: (Aizkorri).
- **12 urtetik aurrera:** *Krisia*, Bernardo Atxaga: (Erein).
- **14 urtetik aurrera:** *Triangelu Hautsia*, Txema Garcia-Viana: (Alberdania).
- **16 urtetik aurrera:** *Momo*, Michael Ende: (Zubia).

astea bi hitzetan

■ **Istripua**

Almeneko bidegurutzean hiru autok elkar jo zuten igandean. Dirudienez, batek ez zuen STOP seinalea errespetatu eta beste bat jo zuen. Horren ondorioz, atzetik zetorrenak beste biak jo zituen. Kolpearen eraginez lau lagun Arrasateko ospitalera eraman zituzten, horietako bat Eskoriatzako 19 urteko gaztea. Zorionez, zauriak arinak izan ziren.

■ **Gizabidea etxeak erosten**

Deba Bailarako hainbat ikastetxe biltzen dituen Gizabidea fundazioa bere ondarea handitzen ari da azkenaldian. Urtea bukatu baino lehen, adibidez, Arrasate

Ikastolak San Viator Txiki-ko eraikina erosiko du Gizabidea fundazioaren laguntzaz. Ikastolak 140 milioi pezeta ordainduko du eraikinaren truke. Kreditua ordaindutakoan eraikina Gizabidearena izango da.

Duela gutxi, berriz, Almenek Eskoriatzako Ganuza jauregia erosi zuen. Zaharberritu ostean, Jose Arana-Almen ikastolako sei urte arteko umeak sartuko dira jauregian. Erosketa hauekin, garai berrietara moldatzeko bidea ari da jorratzen Gizabidea.

■ **Leherketak garaiz abisatu**

Herriko harrobietan leherketak egin behar direnean

garaiz abisatzea eskatuko dio Arrasateko Udalak Eusko Jaurlaritzako Industria Sailari. Horrela, ez litzateke pasa den larunbatekoa gertatuko.

Egun horretan, eragin handiko leherketak izan ziren San Joxepe harrobian eta ondorioz, eten egin zen zirkulazioa saihesbidean. Udalako teknikarien esanetan, arrisku handia sortu zen une horretan.


Udalak ez zuen leherketa hauei buruzko abisua garaiz jaso. Ez zituen beharrezko diren neurriak hartu, bizilagunak abisatzea, adibidez. Ez da hau gertatzen den lehenen aldia. Hori dela eta, Arrasateko Udalak aipatutako eskaera egingo du.



(Arrasateko) Union Cerrajera lantegiko lehen administraria zen orduan Marcelino Oreja Elozegi diputatu tradizionalista bizkaitarra, harroa bere baskongadismo katoliko espainolistan, harroagoa langileriaren aurkako jardunean. 'Belarra jan beharko dute goseak hil nahi ez badute', bota zuen mitin batean Elorrión, bere langileak greban zeuden batean. Ahotan hartu zizkieten hitz haiek langile arrasatearrek eta 1934ko urriaren 5ean orejatarra atxilo hartu eta, biziko grazia eman ondoan, eskukada bat belar lora arazi zioten hatsik gabeko gorpu haren muturrari".

JOXEAN ELOSEGI

Euskaldunon Egunkaria
1999.10.16



weru®
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta leihoez gain:
moketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape kortinak,
Kortinoba, testila...

Arrasateko udal gobernuaren erantzuna postetxearen kontrako erasoari

Arrasateko udal gobernuak osatzen duten lau alderdiek testu bat adostu zuten astelehenean, joan den ostegunean postetxeak izan zuen eraso salatzeke.

Alderdiek asteburua aprobetxatu zuten testua lantzeko. Ostiralean EAK zirriborro bat aurkeztu zien gainerako alderdiei. Arratsalderako EAK, EAJk eta Ezker Batuak adostua zuten testu bat. EHk, berriz, astelehena arteko denbora eskatu zien gobernuko lagunei, ahal bazen denen artean adosturiko ohar bat ateratzeko.

Astelehen goizeko 10:00etan bildu eta berehala iritsi ziren akordiora. Gobernu Batzordeak adostasun hori berretsi baino ez zuen egin. Komunikatu horrekin Gobernu Batzordea—Euskal Herritarrok barne— bereizi egiten da era horretako ekintzetatik.

OPOSIZIOA

Arrasaten oposizioan dauden alderdiek ere iritzia eman zuten komunikatuaren aurrean.

Alderdi Sozialistak zoriondu egin zuen Arrasateko udal



Gobernu Batzordearen testua

1. "Halako gertaerek ez dute laguntzen giro egokia sortzen, Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikoa gainditzeko elkarrizketa eta negoziazio prozesuak gauzatzeko.
2. "Halako ekintzak egiten dituztenek jakin behar dute, oraingo egoera klabe demokratikoan gainditzeko EAJ, EH, EA eta EB alderdi politikoek eta agente sozial eta sindikalek egindako apostu politikoaren kontra doazela ekintza horiek.
3. "Halako ekintzak eginez gero, oztopatu egiten da demokrazia sakontzeko prozesua, Lizarra-Garazi Akordioa sinatu eta gero hasi dena, eta indartu egiten dira estatu eremuko zenbait alderdi politikoren jarrera inmobilistenak.
4. "Postetxeko bulegoan egunean izan ziren gertaera horiek, batetik, erraztu egiten diete lana Arrasateko Udaleko gobernu taldetik bultzatzen ari den elkarrizketa demokratiko eta eraiakuntza nazionalako proiektua boikoteatu nahi dutenei eta, bestetik, kalteak sortzen dizkiete zerbitzu publiko hori erabili behar duten herritarrei".

gobernua, postetxeko eraso-salatu zuelako. Zehazkiago, hauxe adierazi zuen Paco Garcia: "Pozten naiz Gobernu Batzordeak ez dituelako onartzen era honetako atentatuak. Honek lagundu egingo du Euskadi eta Arrasate bakebiderratzten. Beraz, zorionak eman nahi dizkiot Gobernu Batzordeari".

Antonio Palacios popularak ere poza agertu zuen, baina kritikaren mikatzaz ozpindurik: "Poztekoa da EHk kale eraso baten bidez egindako sabotajea gaitzetsi izana. Hala ere, hitz desegokiak erabiltzen dituzte; adibidez, Lizarrako akordioarentzat kapitalizatzen dute bide demokratikoa. Demokrazia hitza erabiltzen dute, orain arte inoiz onartu ez dutena. Beraz, harritu egiten nau salaketa honek, batez ere horrela pentsatzen ez duten beste alderdi batzuen babesa duenean. Espero dezagun, hala ere, lehen pausoa izatea liskar hau konpontzeko". Arrasateko udal gobernuaren komunikatuak oso oihartzun txikia izan du komunikabideetan.

Aitor Elortondo begiralea jipoitu egin zuten

Aitor Elortondo mondragotarra Txiapasen izan da udan, nazioarteko begirale lanetan. Inguru haietan gertatzen diren sarraskien eta injustizien lekukotza ematea izan da bere lana. Baita giza-ekzutu moduan aritzea ere.

ERASOA

Baina, bere lana betetzen ari zela, eraso bat izan zuen.

Gizon talde bat errepidera atera eta Aitorren eta berearekin zihoan neskaen aurka hasi ziren. Mondragoetar gaztea kolpatu egin zuten, lurretik arrastaka zeramate-la. Neskari, aldiz, biluztu eta hatza baginan sartu zioten.

Oihu egin zuten bi gazteek, hil egingo zituztelakotan, eta orduan izutu egin ziren erasotzaileak. Bi gaz-

teei argazki kameran zeramaten karreteak kendu eta alde egin zuten.

Gazteak kanpalekura itzuli zirenean, erasotzaileak paramilitarrak izan zirela jakinarazi zieten.

Orain, gertatutakoa komunikabideetan salatzeaz gain, udalean mozio bat jartzekotan dabil Aitor Elortondo.



Aitor Elortondo.

Gaizki utzitako ibilgailuak eraman egingo dira

Gaizki utzitako ibilgailuak kenduko dituen udal garabia datorren hilean hasiko da lanean Mondragoen.

Oinezkoen pasabideetan, biribiletan eta garajeen edo antzekoen sarreretan dauden ibilgailuak eramango ditu batez ere. Gauza bera egingo da zirkulazioa oztopatzen duten ibilgailuekin eta kalean bertan behera utzita daudenekin ere. Mota guztietako ibilgailuak kenduko dira, txirrinduetatik hasi eta traktoretaraino.

Eramandako ibilgailuak Gelma lantegiaren ondoko orubean gordeko dira, jabeak berreskuratu arte. Ibilgailuak han bi egun baino gehiago egiten baditu, diru kopuru txiki bat gehitu beharko zaio ordaindu beharrekoari.

Horrez gain, ibilgailua gaizki uzteagatik isuna ere ordaindu beharko du jabeak.



Ordaindu beharrekoa

Erretiratutako ibilgailuak berreskuratzeko diru kopuru bat ordaindu beharko da.

- **Txirrinduak, motorrak eta antzekoak:** 2.000 pezeta.
- **Automobilak, furgonetak eta 1.000 kilogramora arteko kamioi txikiak:** 6.000 pezeta.
- **1.000 kg.tik gorako kamioiak, traktoreak eta antzekoak:** 8.000 pezeta.

Garabia zure ibilgailua eramaten hasi denean bertan agertzen bazara, ordaindu beharreko kopurua hasierakoaren erdia da. Kamioi handien kasuan, neurri hau ez da ezartzen.

Diru gutxiegi Iturbiderentzat

Arrasateko Udalaren ustez, Mondragoeko Iturbide Egoitzak dagokiona baino diru gutxiago jasotzen du Gipuzkoako Foru Aldunditik. Hain zuzen ere, urtean dagokiona baino ia 21 milioi pezeta gutxiago.

Hori dela eta, aldundian gai hauetaz arduratzen den Gizartekintzari eskatuko zaio dirua banatzeko erabiltzen dituen irizpideak berriro aztertzea.

Elkarte honek dirua banatzeko orduan bi motatako egoitzak bereizten ditu. Batetik, pertsona ezinduak onartzen dituzten egoitzak. Gizartekintzari atxikitako zentroak dira hauek. Bestetik, pertsona ezinduak eta bestelakoak onartzen dituz-



Urtean ia 21 milioi gutxiago jasotzen ditu egoitzak.

tenak, egoitza mistoak. Gizartekintzarekin hitzarmena sinatzen dute urtero.

Kontua da dirua banatzeko orduan, pertsona bakoitzeko hilerio 45.000 pezeta gutxiago jasotzen dela egoi-

tza mistoetan. Urte batean, kopuru hau ia 21 milioi pezetaraino heltzen da.

Onorioz, Arrasateko Udalak bi motatako zentrotan tratamendu bera jasotzea nahi du.

Berriro ere epaitu dute

Josu Arkauz preso arrasatearrak bosgarren epaiketa izan du. Asteartean hasi eta atzo arte iraun du epaiketak Madrilgo Auzitegi Nazionalan. Oraingo honetan, beste hiru lagunekin batera, 1989. urtean Laudioko Goardia Zibilaren koartelari bonba bat jartzea leporatu diote. Herri akusatzaileak 27 urteko kartzela zigorra eskatzen du. Estaduko abokatuak, berriz, 20 urte eskatzen ditu eta Terrorismoaren Biktimen Elkarteak 32.

Josu Arkauz 1997. urtean Espainiaratu zuten, Frantzian sei urteko espetxe zigorra bete ostean. Orduetik hona, hainbat kartzelatan erabili dute, La Junqueran lehenengo, Soto del Realen ostean eta orain Alcalan.

Jaiotzak

- Alba Revuelta García. Urriaren 5ean.
- Laida Perez Oria. Urriaren 5ean.
- Jone Lizundia Garai. Urriaren 7an.
- Pablo Cuesta Gomez. Urriaren 11n.
- Markel Uribarren Arteaga. Urriaren 14an.
- Gorka Maidagan Uriarte. Urriaren 14an.
- Irati Mellado Servide. Urriaren 15ean.
- Iker Uribesalgo Azpiazu. Urriaren 16an.
- Martin Ferreiro Guridi. Urriaren 17an.
- Maider Herranz Mugika. Urriaren 17an.

Ezkontzak

- Roberto Alcalde Rodríguez eta Agurtzane Zeziaga Mondragon. Elizaz. Urriaren 10ean.
- Luis Badiola Bermúdez eta Raquel Vita Escobar. Zibilez. Urriaren 16an.
- Jose Gabriel Ignacio Fernandez eta Sonia Gutierrez Laguna. Zibilez. Urriaren 16an.

Hildakoak

- Maria Concepción Azkarate Zabarte. 45 urte. Urriaren 5ean.
- Maria Mercedes Ambroy Aranzabal. 67 urte. Urriaren 10ean.
- Priscila Sánchez Rodríguez. 87 urte. Urriaren 10ean.
- Jesus Tristan Oca. 63 urte. Urriaren 19an.


Kooperatibak eta Hego Amerika

Hego Ameriketako hainbat jende Arrasateko kooperatibei begira jarri da, garapenerako dituzten arazoei irtenbidea emateko eredu egokia izan daitekeelakoan.

Jesuitek Hego Ameriketan dituzten unibertsitate guztien koordinatzailea, esate baterako, Arrasaten izan zen joan den astean. Xabier Gorostiagak kooperatiben elkarlana bilatu nahi du, Hego Ameriketako indigenen garapena bultzatzeko.

Xabier Gorostiagak Cambridge ikasi zuen ekonomia. Filosofian eta teologian ere aditua da. Sasoi batean Ignacio Ellakuria El Salvadorren hil zuten josulagun euskaldunarekin batera aritu zen lanean. Ostiralean Arrasaten izan zen, kooperatibetako arduradunekin hitz egiten.

Gorostiagak elkarlana bultzatu nahi du Euskal Herriko kooperatiben eta Hego Ameriketako zenbait talderen artean: "Euskal kooperatibismoa eskualde txiki batean indartu da eta punta-puntako alorrak landu ditu, tokikotasunari, hemengo izaerari alegia, eustea ahalbidetu dutenak. Parti-



Xabier Gorostiagak kooperatibetako arduradunekin hitz egiten.

kulartasan hau ezinbestekoa da. Korporazioek zuzentzen duten globalizazio elitista honi aurre egiteko, behetik gorako globalizazioa landu behar dugu, herri bakoitzaren izaera, kultura eta egiturak kontuan hartuko dituenan".

Gizabidea fundazioak gonbidaturik etorri zen Arrasatera Xabier Gorostiaga. Goizean bilera izan zuen Aretxabaletan, kooperatibetako eta Hezibideko arduradunekin. Eguerdian Antonio Cancelo eta Jesus Mari Herrastirekin bazkaldu zuen. Arratsaldean, berriz, Alecop, Saiolan eta

beste hainbat kooperatiba bisitatuko zituen.

Xabier Gorostiagak laguntza nahi du, Hego Ameriketako indigenak eta herri pobreak ere gai izan daitezen gaur egungo mundu globalizatuan integratzeko, baina euren nor-tasunari eutsiz.

Datorren azaroaren 25ean Arizmendi Topaketak egiten direnerako, Fernando Cardinal nikaraguarra gonbidatu du Gizabideak. Otsailean, berriz, Jon Sobrino etorriko da. Badi-rudi, beraz, hegoamerikarrekiko harremana oparoa izango dela.

Haurdun bazaude LAURA da zure jantzidenda.

Udazkeneko moda gaztea jazteko, neurria ez da arazoa izango.

Neurri guztiak ditugu, baita zabalenak ere.

Laura



Erdiko Kale, 30 • ARRASATE
Tel.: 943 79 05 80

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10 -1 ☎ 943 77 13 34

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak, Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

- LOREA ARAMBURU Dk. Instituto mediko palacio mendia. Erdiko Kale, 22 - 1 ☎ 943 79 72 16

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETXEIA Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroidegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN. RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRANAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSTEOPATIA

- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO D.reak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ☎ 943 79 20 18

PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ☎ 943 79 53 63

PSIKOLOGIA

- TXOMIN NUNEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22



BISITA OSPETSUA

Aita Menni ospitaleak 100 urte bete dituela eta, liburu bat aurkeztu berri da. Horrez gain, baina, bestelako ekintzarik ere egin izan da urteurrena ospatzeko. Horren adibide da ondorengo argazkia. 1997ko abenduaren 18an, Laboa gotzaina, Libian Aita Santuaren Nuntzio lanetan ari dena, hemen izan zen. Meza eman zuen mojetako Aita Menni elizan eta kantuan ibili zirenekin argazki bat atera zuen. Argazkikoak: goitik hasita, On Jose Berezibar, mojetako kaperau izana, Julio Iriondo, Felix Arriaran, Iriondo. Behean ezkerretik hasita, Jesus Barrutia, Rafa Fernandez, David Arzamendi eta Patxi Nafarrate. Gotzainaren ondoan, Jose Angel Agirre kaperaua, Karmelo Heriz eta Florentzio Unamuno.



BAT EGINIK, BAT IZANIK

Arantza Telleria eta Ramon Bidaburu "Txarra" pasa den irailaren 25ean ezkondu ziren, Dorletan. Lagun taldearen partetik, zorionak!!!

Haurtxoa

Arrasate pasealekua, 4 • Tel.: 943 79 14 90 • ARRASATE

*Jaioberrientzako
jantzi eta osagarri
guztiak: aukiak,
jostailuak,
sehaskak,...*

**Neguko
denboraldiko
arropa berriak**





ARRAKASTA GALANTA

Igandean *El Caserío* zarzuela ikusi ahal izan zen berriro ere Arrasaten. Arrakasta izugarria izan zuen, gainera, Amaia Antzokia leporaino bete baitzen.

Ekitaldi honetan, aipamen berezia merezi du herriko Arros-taitz dantza taldeak, eta mutilek, batez ere. Txoritxo batek esan digunez, gogor lan egin dute

domekako saioan dantza egiteko. Azkenean, primeran egin zuten, mutilek zein neskek. Zorionak, guztioi, beraz!!!

IZENAK

Josu Zabala

Josu Zabala, orain arte Ikerlaneko Teknologia Arloko zuzendari izan dena, Fagor Elektratresnak enpresako Hotz Arloko gerente izendatu dute.



HILDAKO MENDIZALEAK GOGOAN

Udalatx egun berezia izan zen aurtengoa. 28 urteko ohiturari jarraiki, goizean *Udalatx* puntan elkartu ziren mendizaleak. Hildako mendizaleen omenezko lore eskaintza eta Aita Gurea errezatu ostean, Udalara jaitsi ziren meza entzutera. Dirudienez, ez zuten aurkitu *Udalatx* puntara meza ematera joateko prest zegoen apaizik.



ZORIONTSU IZAN!

Betirtze Iñurritegi, garai batean ATB-ko Kukaratxa Motel saioko aurkezlea, ezkondu egingo zaigu. Ostean, "Txantxikulandiara" joango da bizitzera. Zorionak, bikote, lagun taldearen partetik eta noski, baita ARKOk langileen partetik ere.



Sartu, sartu eta ikusi Holo

15 urte dira "sartu, sartu eta ikusi" esaten. Hamabost urte barrea eragiten eta ikuskizun sinestezinak plazaratzen. Hegadan egiten duten txakurrak, airean jauzi egiten duten trapezistak, hanka biren gainean ibiltzen diren zaldiak... Eta sugeak, yakak, krokodiloak, bufalo amerikarrak, gameluak eta nahi adina animalia. Badirudi zoologiko bati buruz ari garela, ezta? Baina ez! zirkuaz ari gara. Garai batean sekulako ikusmina sortarazten zuen ikuskizunaz. Gaur egun ere txikienen aurpegietan harridura sortzen dakite. Eta hala ikusi ahal izan genuen joan den asteburuan. Ostegunetik igandera bitartean, Arruenako parkean egon zen Holidays zirkua eta gu ere bai, noski. Umeek bezala pasa genuen eta ikuskizuna garai batekoak bezalakoa izan zen. Zatoz, zatoz gurekin Holidays zirkua ezagutzera!



4 3 lagunek osatzen dute gaur egun Holidays zirkua. Baina noiz sortu zen? Hemen adin askotako jendea dago... "Orain dela 15 urte hasi ginen. Baina aurretik gure familia ere horretan aritzen zen. Ni seigarren belau-naldikoa naiz. Atera kontuak, beraz!". Kontu hauek Ramon Sacristanek esan zizkigun. Berarekin izan genuen solasaldia, bera baitzen zirkuko zuzendaria. Baina ez hori bakarrik, zirkuak erosi berri dituen animaliekin lan egiten du eta. Zaldi palominoak dira: lau zaldi eder "3 miolioiren truke

erosi dizkiogu beste zirku handiago bati. Inbertsio handia da, baina merezi du. Zirkuan denak merezi du".
Baieztapen horrek harritu egin nau. Batetik bestera bizi dira, karabana batean lo egin eta jaten dute; jendeak zirku-joateko gogorik ez badu, ez dute ezer irabazten; 3-4 egun herri bakoitzean eta egunero aurpegi ona jarri behar, karpenterdian jarri eta ikusleak animatzeko. Ez al da gogorra bizimodu hori? "Beno, Arrasatera Zornotzatik etorri gara eta hemendik Beasainera joango gara. Jadanik hirugarren urtea dugu Arrasaten.

Eta bai, gehienetan, 2 eta 4 egun bitarte egiten dugu herri bakoitzean. Urte guztian gauza bera, batetik bestera, penintsularen erdi aldetik gora. Eta gogorra? bai, nahiko gogorra da. Begira: lehenik eta behin, eskaera egin behar izaten da herrira etortzeko. Baimena lortu eta zirkua muntatu behar da eta, horrekin batera, geure karabantzako ur eta argi instalakuntza egin behar izaten dugu. Baina bizimodua gogorra izan arren, aldi berean polita da oso. Jende asko eta leku asko ezagutzeko aukera izaten dugu. Zirkuan bizi izatera ohitu denak ezin izate

ten du bizimodu hau utzi eta lantegi batean zortzi orduz lan egin. Ni neu, hil egingo nintzateke. Dena dela, ez da edozein ohitzen bizimodu honetara". Beraz, zirkua bertan bizi direnentzako da? "bai, nik baietz uste dut".
ZIRKUA EGÜN
Garai batean zirkua herrietara etortzen zenean zoramena izaten zen. Inork gutxik ikusi ahal izaten zituen zirkuko animaliak bertara joan ezean. Eta orduko magia ikuskizunak? Zer ziren gero haiek!
Baina haiek beste garai batzuk ziren. "Zirkua gainbe-

days zirkuaren ikuskizuna

hera dator azken urteotan. Batzuek telebistaren errua dela diote, baina kontuan izan behar dugu iruzur handiak egin izan direla zirkuaren inguruan. Batzuek sekulako ikuskizunak iragarri izan dituzte eta gero erdia ere ez dute eskaini. Horrek min handia egin dio zirkuari. Zumarragako udalean, esaterako, ez gaituzte hartu ere egin, aurretik herrian egon zen zirku batek egin zuen iruzurratik. Eta horren aurrean ezin dugu ezer egin. Gure kasuan, bost hilabete oso txarrak daramatzagu. Hondamena da. Hainbat lekutan, gastuak ordaintzeko lain irabazi dugu eta horrela ezin da bizi. Astean milioi bat edo milioi eta erdi pezeta behar izaten dugu, gutxi gorabehera. Ez da guk edo animaliek jaten dutena bakarrik. Zirkuak hartzen duen lurzorua alokatu egiten dugu eta batzuetan oso garestia izaten da”.



Jende ugari hurbildu zen Holiday zirkuera herrian egon zen lau egunetan.

Zirkua gainbehera dator azken urteotan. Batzuek telebistaren errua dela diote, baina kontuan izan behar dugu iruzur handiak egin izan direla zirkuaren inguruan



Zaldi palominoen ikuskizuna, berria da zirko honetan.

FAMILIA OHITURA

“Gaur egun 43 lagunetik 20 batek hartzen dugu parte zuzenean zirkuaren. Ikuskizuna eskaintzen dugun gehienok gazteak gara. Jendeak nahia go izaten ditu gazteak. Baina hemen dagoen jende helduak garai batean ikuskizunean lan egin zuen. Gaur egun bestelako lanak egiten dituzte: sarreak saldu, konponketa txikiak, animaliei jaten eman... Kontua da bizi osoa igaro dutela zirkuaren eta orain ere hemen segitzen dute, baina bestelako lanetan. Euren ere ez dakite hemendik kanpo bizi izaten”. Eta agian horixe gertatuko zaio Iñigori ere. 9 urte bete ditu, joan zen ostegunetan hain justu, eta zirkuaren bete ere, bertan bizi baita. Berari krokodiloak, sugeak, yakak, bufaloak... animaliak, guztiak gustatzen omen zaizkio. “Domatzailea izan nahi nuke. Animaliekin bizi naiz eta gustuko ditut. Baina orain paila-



Ramon Sacristan zaldietako batekin.

zoa naiz eta uste dut martxa honetan pailazo izaten jarraituko dudala. Urtebete nuela hasi nintzen, nire osaba-izebekin danborra jotzen. Orain, berriz, neure ikuskizuna daukat eta hainbat *show* eskaintzen dut. Nire gurasoak eta aiton-amonak pailazoak ziren eta eurek erakutsi didate jendeari barre eragiten”.

Zirkuan bizi dira eta bate-tik bestera. Denborarik gabe inon gelditzeko. Izan ere, urte osoa egiten dute eta, herriz herri. Gainera, Zaragozako, Bartzelonako, Burgoseko, Italiako, Alemaniako eta beste hainbat lekutako jendeak osatzen dute familia handi hau. Eta horrenbeste jenderen artean ume asko egotea ere normala da. Iñigorekin batera beste sei haur daude zirku honetan. Eta guk eskolara joa-

ten diren ere galdetu diegu. Iñigori egin genion galdera: eta eskolara noiz joaten zara? “Egunero, asteburuetan ere bai. Andereñoa daukagu” (Iñigo). Nola? “Hezkuntza Ministerioak irakaslea bidali digu. Gurekin bizi da eta zirkuko 7 hurrek eskolak izaten dituzte egunero karabana batean” azaldu digu Ramonek. Lehen ere izan omen zuten irakaslea, baina horretarako gutxienez sei haur behar izaten dira eta aurten zazpi direnez, berriz ere lortu dute irakaslea.

Mercedes, Ramonen arreba eta Iñigoren izeba da. Munduko trapezistarik onenetarikoa omen da eta Iñigo bezala, jaio zenetik zirkuan bizi da. Gaur egun 20 urte ditu eta bere mutil-lagunak ere zirkuan lan egiten du, nahiz eta bera baino geroago hasi zen ikuskizunaren eta magiaren mundu honetan. “Nik atsegin dut zirkua. Barrutik gogorra da, bai-

na ikusleen aurrean ondo sentitzen naiz. Eurak hor egotea eskertu egiten da, bestela lan egiteko gogorik ere ez dut izaten. Eguneroko bizimodua gogorra izan daiteke, baina azkenean arlo guztietara ohitu beharra dago. Lehen baino jende gutxiago etortzen da zirkura eta hemen gaude oraindik. Dena dela, gero eta zirku gehiago dagoelako dela uste dut”. Zuk trapezioa hautatu zenuen... “Bai txikitatik nuen gustuko eta horretan hasi nintzen”.

Iñigo, Ramon eta Mercedes eta Holidays zirkuko familia handia Beasainen da asteburu honetan. Arrasaten barre algara mordoska lagata aldegin dute.

Beharbada, datorren urtean ere etorriko dira inguru honetara. ■

Marijo Deogracias



Mercedes Sacristan.
20 urte.
Trapezista.

“Nik atsegin dut zirkua. Barrutik gogorra da, baina ikusleen aurrean ondo sentitzen naiz”



Iñigo Sacristan.
9 urte.
Pailazoa.

“Nire gurasoak eta aiton-amonak pailazoak ziren eta eurek erakutsi didate jendeari barre eragiten”



Ramon Sacristan.
26 urte.
Domatzailea.

“Zirkuan bizi izatera ohitu denak ezin izaten du bizimodu hau utzi eta lantegi batean zortzi orduz lan egin”



A n t z e r k i a

DESPE^aRRADOS

AMa^a ANTZOKIA

Euskaraz

URRIAK 23, larunbata gaueko 10:30ean
Sarrera: 1.000 pta. (Gazte Txartelarekin: 800 pta.)



ARRASATEKO UDALA

JUAN ANTONIO URDANGARIN (HIRIGINTZA SAILEKO TEKNIKARI

“Herri erakargarriago

38 urte ditu eta horietatik 11 Arrasateko Udalean daromatza, Hirigintza Sailean, arlo teknikoko arduradun nagusi bezala. Sortzez donostiarra bada ere, Zarautzen bizi da aspaldidanik eta autoan, irratia entzunez, egiten du joan-etorria.

— Zein da zure lana Udaleko Hirigintza sailean?

— Hirigintza antolatzerakoan eta kudeatzerakoan parte hartzen dut, eta obrak erakitzekeo prozesuan ere bai: proiektuak eginez, zuzendari-tzan... Udal ondarearen kudeaketan ere esku hartzen dut.

— Hirigintza aldetik, zure ustez zein da Arrasatek duen behar handiena?

— Lurzorua. Hainbat alor garatzen ditu Arrasatek eta lur gehiago behar lituzke historian zehar sortu diren ideia guztiak gauzatzeko. Halere, Arrasateko esparru naturala kude-

atzen segitu behar dugu etxebizitzak eraiki eta hiri zabal-gunea egiteko: etxe txikiak, Gelma, Ertzaintzak gaur egun hartzen dituen lur sailak...

— Dena libre bazenu eta aukera errealez baliatuz, zer egingo zenuke herrian?

— Garai batean industriara zuzendutako lur eremuak, erdialdean daudenak eta gaur egun zaharkituta gelditu direnak, etxebizitzetarako erabiltzen saiatuko nintzateke. Momentu honetan Arrasatek duen arazo handiena etxebizitza falta da. Jarduera ekonomikoetarako lur eremuak badauzkagu eta kudeatuta daude, eta oraindik badi-tugu gordespen batzuk.

— Zuk proiektu askotan hartu duzu parte. Zein izan da zailena?


— Uarkapekoa. Udal proiektua ez izan arren, Udala inplika-

tuta egon zen. Arazo juridi-koak, teknikoak, iritzi ezberdinak... izan ziren. Mendia mugitzen hastean, pareta egin behar izan genuen, eta arlo tek-nikoan hainbeste iritzi eta par-taide izanda, ez zen erraza izan guztia kudeatzea. Goiko etxebizitze-tan sortutako kal-teak konpondu behar izan ziren, eta behekoetan baimenak lor-tu etxebizitzak eraikitzeke. Horretaz gain, pilotale-

kuaren proiektua ere zaila izan da, hainbat aldiz aldatu baita.

— Nola erabakitzen da Arrasateko lurren banaketa?

— Gehien mugatzen gai-tuen irizpidea dagoeneko egi-na dagoen Arrasate da. Oso aukera gutxi dago hori ukitzekeo. Gauza onak eta txarrak ditu herriak, eta gaur egingo ez liratekeen gau-za asko ere bai. Adibidez, Alta-mirako maldan trinkota-sun



“Altamiran trinkotasun handiegia dago. S. Andresen, berriz, gaur egun ez litzateke dorrerik egingo”

RIA)

oa egin behar dugu”

handiegia dago, eta San Andre- sen gaur egun ez lirakeke dorre- ak egingo. Bestalde, aparka- lekuak lur azpian egingo lira- teke. Banaketa egiterakoan esparruak hartu eta alboko era- bilerarekin bat datozen jar- duerekin hutsuneak betetzen saiatu behar dugu. Erdialdea etxebizitzetzi eman eta herria- ren irteerak jarduera ekono- mikoetara zuzentzea da zuzene- na.

— **Etxebizitza eskaintza txikia da Arrasaten. Zergatik?**

— Ez dago lurrik, eta kudeatzeke geratzen den lurra zail-

tasunak sortarazten ditu. Arrasateko hiri zabalgunea egiteko, adibidez, etxe txikiak, Gelma lantegia, Ertzaintza... dago kudeatzeko.

— **Babes ofizialeko etxebizitzetan, eskaria ia eskaintzaren lau halako da. Nola egin aurre arazo horri?**

— Batetik, egitamu orokorrean babes ofizialeko etxebizitzetarako esparru handiak jarritz. Aukera hori legeak jasotzen du. Bestetik, udalak berak kudeatzen dituen lurra babes ofizialeko etxeak egitera zuzenduz.

— **Mondragon Unibertsitatearen aurreikuspenen arabera, ikasle olde handia etorriko da datozen urteotan ere, eta ez dago etxerik alokatzeko.**

— Arrasatek etxebizitza gehiagoren behar nabarmena du. Etxebizitza bakoitzeko pertsona gutxiago bizi da. Beraz, jende kopuru berarentzat etxebizitza gehiago behar dira. Arrasaten biztanleria jaitzi egin da piska bat, baina ez etxebizitza estandarrak beste. Bestalde, asko dira eguna edo astea pasatzera etortzen direnak, lana, ikasketak... direla medio. Horiei ere aurre egin behar zaie

eta MUren aurreikuspenak direla eta, sortu beharko da ikasle egoitzaren bat, eta etxebizitzaren arloan ditugun aukera guztiak prestatu behar ditugu.

— **Nolakoa izango da etorkizuneko Arrasate?**

— Badirudi teknologia berriak batezbestekoaren gainetik bereganatzen ari den herria dela. Horrek zeresan handia izango du etorkizunean. Bestalde, erronka handia du Arrasatek herri erakargarri bat sortzen. Hori ez da egun batetik bestera egiten, eta faktore asko daude tartean. ■



AMAGARA

Udazkenean

zure gorputza zaintzeko
tratamendu bereziak

Eskaintza berezia, urriaren 22tik azaroaren 19ra


ZATOZ GEHIAGO JAKITERA

Eta gainera, gure Estetika Zerbitzuak eskaintzen dizkizunak:

- Aurpegi eta gorputzerako tratamendu bereziak.
- Depilazioa argizari bero nahiz hotzarekin, tratamendu progresiboan.

- Depilazio elektrikoa, Blend sistemarekin.
- Makilajea, manikura, betileen permanentea eta tintea.
- Ezpain, begi eta bekainetako makilajea, permanente eta guzti.
- Mediku kontsulta eta terapia bereziak.

Erdiko Kale 54, etxabea • ARRASATE • Tel.: 943 79 09 09





Kulturaz kirola gizonena izan da

AKPn herriko eta Aramaioko ikastetxeeko neska-mutikoak aritzen direla esan dizuegu behin baino gehiagotan. Baina zenbat dira mutilak eta zenbat neskak? Hasiera batean, galdera bera ere ez litzatekeela egin beharko pentsa genezake. Kontua da mutiko gehiago ari direla neskek baino. Baina zergatik da hori? Horren gainean aritu gara Julia Monje, Musakolako herri ikastetxeeko zuzendariarekin. Izan ere, aurtengo ikasturtean AKPn ari diren nesken eta mutikoen parte hartzea erabat ez bestelakoa berdina da. %64 mutikoak dira eta %40, berriz, neskak. Eta joera horixe izan da AKP lanean hasi zenetik, hau da, 1991ko ikasturteetik.



Julia Monje.

👉 Zer iritzi duzu horren gainean?

— Kopuruak argiak dira: neska gutxiago ari dira mutikoak baino. Dena dela, AKPn ari diren nesken kopurua ez zait

iruditzen txikia denik. Psikomotrizitatean esaterako, 6 urteko haurrekin, partehartze kopurua nahiko antzerakoa da. 475 mutilak eta 328 neskak.

👉 Zer eragiten du ezberdintasun hori?

— Orduz kanpoko eskaintza oso zabala da eta askotan gurasoen asmoen artean kirolak ez du lehentasunik izaten. Batez ere alaben kasuan. Gizarteak ere eragin handia du. Kulturaz kirola gizonetzkoen arloa izan da eta horren adibide dira, esaterako, telebistako kirol saioak, gehien agertzen diren kirolariak gizonetzkoak dira. Neskek umetan ez dute kirol idolorik izaten.

👉 AKPk zer eskaintzen

du egoera hori aldatzeko?

— Proiektuaren helburua parte hartzea gehitzea da, baina lehiakortasunik gabe. Kirola heziketa modu bat dela erakusten du eta umeen arteko harremanak estutzen ahalegintzen da.

👉 Zer gehiago egin daiteke?

— Erakundeek esfortzu berezia egin beharko lukete eta laguntza eskaini. Gurasoek ere aldatu egin beharko litzukete euren lehentasunak. Kirola hezitzeko modu bat dela izan beharko lukete kontuan. Horrez gain, komunikabideek ere “diskriminazio positiboa” erabili beharko lukete eta emakumezkoen kirol buruz berri gehiago eman.

Hurrengo jardunaldia

Urriak 23

FLOORBALL

👉 Aurrekirola

Gazteluonden

09:30	SFX D- SFX C Erguin B-SFX E
10:15	SFX U-Erguin A San Viator B-SFX B
11:00	San Andres-Musakola Merced B-SFX A
11:45	San Viator A-Merced A
12:10	Merced A-Aramaio
12:30	San Viator A-Aramaio

MINIESKUBALOI TXAPELKETA

👉 Multikirola

Iturripen

NESKAK

10:45	SFX A-San Viator B
11:45	Merced-SFX U

MUTILAK

09:30	SFX U-Merced
10:15	SFX C-SFX A
11:00	San Viator C-SFX A
11:00	San Viator C-SFX B
11:45	San Viator A-Aramaio San Viator B-Erguin

Sailkapenak

MINIESKUBALOI TXAPELKETA

NESKAK

	Jokaera	Partaidetza	Puntuak	Guztira
San Viator B	3	3	3	9
San Viator A	3	2,5	1	6,5
SFA A	3	0,5	3	6,5
Merced	3	1	1	5
SFX U	-	-	-	-

MUTILAK

	Jokaera	Partaidetza	Puntuak	Guztira
A taldea				
SFX U	3	2	3	8
Merced	3	2,5	3	8,5
San Viator B	3	2	1	6
Erguin	3	0,5	1	4,5

B taldea

San Viator C	3	2,5	3	8,5
Aramaio	3	2,5	1	6,5
SFX B	-	-	-	-

C taldea

SFX C	3	1,5	3	7,5
San Viator A	3	2	1	6
SFX A	-	-	-	-

Mendi irteerak

Hilabetero mendi irteerak antolatuta ditu AKPk. Ikastetxeetako haur denak (AKPn daudenak eta ez daudenak) joan daitezke gurasoekin batera.

Igande honetan Leungane mendira joango dira, Urkiolako Parke Naturalera. Azaroan Aumategira joango gara. Elgeako mendizerran dago eta beste Mugarriluze ezagutuko dugu. Izenak dioen bezala, muga markatzen duen monolito handia da hau. Haize zentralaren lanak egiten ari diren kalteak ere ikusiko ditugu. Abenduan, oporren aurretik egingo dugu azken irteera. Aitzorrotzera izango da.

Irteeretan parte hartzeko ikastetxetan banatu diren izenemate orriak bete behar dira.

Gogoratu, mendiaz denek gozatzeko, garbi gorde behar dela. Gomendagarria da poltsa huts bat eramatea zaborrak ekartzeko.

SASKIBALOIA Etxean garaile



Kenci-Arrasate taldeak Ordizia izan zuten aurrez aurre joan den larunbatean, Iturripen. Etxean jokatzeko zuten bigarren partida izan zen mondragoetarrentzat eta bigarren garaipena segidan. Eta ez zuten edozela irabazi, gainera. Izan ere, lehen 20 minutuetan nagusi zirela erakutsi zuten eta horrela iritsi ziren amaierara ere. Lehen zatia 51 eta 26 aurretik amaitu zuten etxe-koek. Ordiziarrek ez zuten asmatu arrasatearren erasoak gelditzen eta ezin izan zuten ezer egin. Bigarren zatian arrasatearrak lasaitu egin ziren eta ordiziarrei baloia saskian sartzen laga zieten. Tarte piska bat txikitzea lortu zuten arren, 85 eta 69 irabazi zuten arrasatearrek. Aste honetan Ceramicas Apaolazaren aurka arituko dira. Iaz Kenci-Arrasate taldeak irabazi zion Ceramicasi bere jokalekuan.

FUTBOLA Hutsagatik, baina ezin



Denboraldiko 6. partida jokatu zuten Esti Loitireneske joan den igandean. Gasteizko Aurrera taldearen aurka izan zen, eta alde txikiarekin, baina galdu egin zuten Atxabalpen.

Gasteiztarrek aurreratu ziren markagailuan eta berdinketa lortu zuten arren, Larraitzek jaurtiketako falta zuten bati esker, gasteiztarrek aurrea hartu zieten berriz ere arrasatearrei.

Giroa berotu egin zen, gainera, bigarren gol honen ostean. Izan ere, jokoz kanpo eskatu zuten jokalariek, baina epai-leak ez zuten hori ikusi eta ontzat eman zuten gasteiztarren bigarren gola.


Azkenean 1 eta 2 markagailuan eta puntuak Arabara. Aste honetan derbia izango dute, Almenen aurka.

ESKUBALOIA Hasteko, berdinketa



Gazte mailako eskubaloitaldeak 25na berdindu zuten denboraldiko lehenengo partidari. Arrasatearrek Almenen kontra jokatu zuten joan den igandean. Jesus Mari Herreroren taldeak ez zuen amore eman, nahiz eta beldurrez kantxaratu. Bi taldeak nahiko berdintsu aritu ziren. Lehen zatian agian bisitariak joko hobea izan zuten, baina bigarrenean etxe-koek konfiantza hartu eta beldurrik gabe jokatu zuten. Bigarren zatian zehar tantu bateko alde izan zen bi taldeen artean. Eta horrela izan zen ia partida amaierara arte. Azkenean, ez bata eta ez besteak ez zuten garaipenik lortu. Markagailuan puntuak berdinduta. Arrasate 25, Almen 25. Senior mailakoek, bestalde, 29 eta 16 galdu zuten Pasaia Donibaneren aurka.

XAKE Hasiera bikaina



San Andres Xake taldeak larunbatean 4 eta 0 irabazi zuten denboraldiko lehen norgehiagokan. Lortu zitezkeen puntu guztiak eskuratu zituzten arrasatearrek. Dagoeneko sailkapeneko lehen tokian daude. Izan ere, euren izan da lau puntuak lortu dituen talde bakarra.

Etxean aritu ziren joan den larunbatean. Urrietako laukoaren aurka jokatu zuten, Ortegak, Tornayk, Hernandok eta Ruizek. Partida guztiak irabazi zituzten herriko xakelariek. Lehen neurketa izanik, beraz, ez dago batere txarto. Aste honetan Donostian arituko dira Fortuna taldearen aurka. Iazko denboraldian 2,5 eta 1,5 irabazi zuten San Andres Xake taldekoek. Larunbatean ere Ortegak, Tornay, Hernando eta Ruiz arituko dira Arrasate ordezkatzeko.

Emaitzak

SASKIBALOIA:

- Junior: Easo Cafes Aitona 94 - Arrasate 34.
- Haur maila: Santo Tomas Lizeoa 36 - Arrasate 47.
- Haur maila neskak: Almen 32 - Arrasate 12.

FUTBOLA

- 2. errejional maila: Usurbil 2- Mondra 2.
- Ohorezko gazte maila: Mondra 0- Eibar 1.

- 2. gazte maila: Urki 0- Arrasate 5.
- Ohorezko haur maila: Hernani 2- Arrasate 1.
- 2. haur maila: Arrasate 0-Eibartarrak 3.
- Ohorezko infantil maila: Arrasate 0 - Real Union 3.

Jokatzekoak

SASKIBALOIA:

- Juniorrak: Santo Tomas Lizeoa -Kenci Arrasate.
- Haur maila, mutilak:

- Kenci Arrasate - Oñati.
- Haur maila neskak: Kenci Arrasate - Oñati.

FUTBOLA:

- 2. errejional maila: Mondra-Tolosaldea, domeka: 16:30.
- Ohorezko gazte maila: Mariño-Mondra.
- 2. gazte maila: Arrasate-Eibartarrak, larunbata: 16:30.
- Ohorezko haur maila: Arrasate-Bergara, larunbata: 10:00.

- 2. haur maila: Arrasate-Antzuola, larunbata: 10:00.
- Ohorezko infantil maila: Sporting Herrera-Arrasate.

ESKUBALOIA:

- Seniorrak: Arrasate Almen - Elgoibar, igandea: 12:00etan.
- Gazte maila: Aloña Mendi-Arrasate
- Haur maila: azaroaren 21ean ekingo diote denboraldiari.



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu jostekak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

Saioa Karate Eskola: Euskal Herriko txapelketa prestatzen

Joan den asteburuan Saioa Karate eskolako lau kide Espainiako txapelketarako txartelaren bila abiatu ziren Basaurira Gipuzkoako selekzioarekin. Erik

Martinek, Jorge Sanchezek, Maikel Talledok eta Iker Zabartek, ordea, ezin izan zuten ezer egin bizkaitarren aurka. Ezin izan zuten, beraz, Espainiako txapelketarako txartelik lortu.

Orain Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketa prestatzen hasi dira. Izan ere, denboraldia orain dela gutxi hasi

dute eta gutxi entrenatzeak eragin omen ditu emaitza eskasak.

Hauek dira aurten txapelketetan arituko diren Saioako karatekak:




Ivan Galan
gerriko marroia
infantila



Oliver Sanchez
gerriko urdina
infantila




Maikel Talledo
gerriko marroia
haur maila



Mikel Zabarte
gerriko marroia
haur maila




Sandra Alvarez
gerriko marroia
junior maila



Jorge Sanchez
gerriko marroia
junior maila




Jon Alvarez
gerriko urdina
junior maila



Iker Zabarte
gerriko marroia
junior maila



Igor Ramos
gerriko urdina
senior maila



Erik Martin
1. dan
senior maila



Jose Manuel Petite
1. dan
senior maila



Iñaki Muñoz
3. dan
entrenatzailea

Gipuzkoako pilota txapelketa

Herriko pilotariak hainbat txapelketa jokatzeko ari dira aldi berean. Batetik, Gipuzkoako taldekakoa eta bestetik, Gatzagan jokatzeko ari den eskuz binakako I. pilota txapelketa.

Lehenengoan, hiru partida jokatu dituzte asteburu honetan. Larunbatean, esaterako, Azpeitiko bikotearen aurka arituko dira Lazkano eta Belategi bikote arrasatearra. Arrasaten jokatu dira beste bi norgehiagokak: goizeko 11:00etatik aurrera, gazte mailako eta senior mailako partida bana, hain zuzen ere. Gazte mailako Dominguezek eta Uribarrenek, Real Sociedad taldeko bikotearen aurka jokatu dute. Senior mailan, berriz, Zugasti eta Zuazubiskar arituko dira bisitarien aurka.

OSTIRALEAN GATZAGAN

Gatzagako I. eskuz binakako pilota txapelketan, bestalde, sei pilota partida jokatu dira. Arratsaldeko 17:30ean ekingo diote eta sari banaketa Jokin Etxaniz eta Aitor Elkoro pilo-



Aitor Elkoro eta Jokin Etxaniz pilotariak emango dituzte sariak.

tari profesionalak egingo dute.

BESTE EMAITZA BATZUK

Joan den asteburuan kanpoan aritu ziren herriko pilotariak. Lau bikoteetatik hiruk galdu egin zuten. Haur mailakoak Billabonan aritu ziren eta 22 eta 11 galdu zuten Zuazua eta Jimenezek. Gazte mailako Uribarrenek eta Dominguezek, berriz, 22 eta 14 galdu zuten Añorgan. Juniorretan Osinagak eta Belategik, 22 eta 3 irabazi zuten.

PARTIDAK:

Aurrebenjaminetan: Dominguez-Bolinaga/Akizu-Zubillaga

Benjaminetan: Atoñako-Alonso/Elortza-Arregi

Alebinetan: Rezano-Gebara/Gorka-Otxoa

Infantiletan: Axpe-Zubiate/Zuazua-Agirre

Gazte mailan: Rezano I-Gebara I / Uribarren-Dominguez

Juniorretan: Lasagabaster-Uriarte/Lazkano-Belategi

Autokros arrakastatsua

Autokros txapelketa jokatu zen Oñatin joan den larunbatean. Iaz baino auto gehiago aritu ziren lehian. Guztira 79 partehartzaile aritu ziren, aurretik kamioi batekin ureztatu zuten pistan. Honek gainera, pilotuen artean iritzi kontrajarriak sortarazi zituen. Batzuentzat pista bustitzeak ikusgarritasuna areagotzea dakar, baina beste batzuen iritzi, lurra bustita egoteak autoekin abiada txikiagoan aritzea dakar.

Zirkuitua txikia eta estua zen. Probak bi aldi zituen, baina horrez gain, bi lehian jokatu ziren. Batetik



parte hartzaile guztiak aritu ziren seinakako taldeetan. Garaipena Rafael Sanchezek lortu zuen, Peugeot 205 batekin.

Bigarren proban oñatiarrak bakarrik aritu ziren. 9 auto atera ziren batera, eta

aurreko ikuskizuna hobetzea lortu zuten, auto gehiago aritu zirelako elkarrekin zirkuituan.

Proba honetan Iñigo Guridi izan zen irabazlea, 46. zenbakiarekin, Renault 21 autoarekin.

Real Sociedad taldea fitxaketak egin nahian

Oskar Gavilan, Jonatan Perez eta Unai Sarabia dira Arrasate Kirolak Atletiko taldeak dituen atletarik onenetarikoak. Eta Real Sociedad taldeak ere horixe uste du. Izan ere, eta Fernando Zufiria entrenatzaileak adierazi digunez, "Donostiako taldea hiru kirolari hauek fitxatzekotan da". Hirurak hamar urte zituztela hasi ziren taldean. Oskarrek, disko eta pisu jaurtiketa egiten du. Jonatan pertikan aritzen da eta Unai, berriz, lastertasun probetan.

Dena dela, Real Sociedad eta Atletiko taldeek hitzartu dutenaren arabera, datorren urtea arte ez dituzte adostuko fitxaketak. Arrazoia zera da: hiru kirolariak junior mailan ari direla eta datorren urtean 19 urte izango dituztenez, talde nagusian aritu ahal izango direla. Ez da berri txarra. Fernandok adierazi bezala, "herrian harrobi ona daukagula esan nahi du horrek eta oso berri ona da Real Sociedaden mailako talde batek gure herriko kirolariengan interesa erakustea".

PERTIKA IKASTAROA

Fernando Zufiria entrenatzailea eta Jonatan Perez, Remi Diosdado eta Oliver Fernandez kirolariak Donostiara joango dira asteburu honetan.

Hantxe Gipuzkoako Federakundearen ikastaro batean arituko dira. Pertika ikastaroa izango da. Fernandok azaldu digunez, "helburua da Arrasaten pistak egiten direnerako gure haurrei modu egokian irakasteko gai izatea". Ikastaroa Ignazio Altunak eta Aitor Garrok eskainiko dute eta hiru egunean zehar Donostian arituko dira Atletiko taldeko lau kideak.

Servicio Secreto, Mexikotik Arrasatera



Hip-hopa lantzen du hirukote mexikarrak.

Gaur bertan, Arrasateko Gaztetxean ezohiko proposamen bat daukagu; hain zuzen ere, Mexikotik datorrigun *hip-hop* musika talde bat. Hain da, aurrez grabatutako soinu, erritmo kaxa eta plateren gainean repeatutako (errezitatutako) doinuak.

Testuinguruan kokatzeko, hirukote honen ibilbidea azalduko dugu. Talde honek, bi bilakaera nagusi izan ditu. Lehena, 1996. urtean Mexiko hiriburuan hasi zen. Garai hartan, sei pertsonak (bateria, baxua, gitarra, tronpetak, platerak eta bi ahotsek) osatutako taldearen barnean zeuden eta euren musika-norabidea oso zabala zen: surfa, punk melodikoa, garage ska, rag-

gamufin-a eta rapedo *hip-hopa* jorratzen baitzuten. Azpimarratu beharra dago garai hartan, partaideen artean bi neska zeudela (Mexikon, zoritxarrez, batere ohikoa ez den arren). Mexikon zehar hainbat kontzertu arrakastatsu eman ondoren, taldea banandu egin zen.

Handik denboratxo batera, gaur gure artean ditugun hiru partaideek berriro proiektua osatu eta *hip-hoperantz* gerturatu ziren. Mexikon zehar hainbat emanaldi eskaini ondoren, itsasoa zeharkatu eta Euskal Herrira etortzea erabaki zuten. Kontuak denboraz hartu nahi izan dituzte, eta dagoeneko Nafarroan zein Bizkaian jotzen aritu izan badira

ere, Itoitz inguruko herri okupatu batzuetako esperientzia bizi izateko aukera ere izan dute. Gure herria asko maite badute ere, beste zenbait kontzertu egin ondoren, Europan zehar bira prestatzen ari dira.

Hip-hop hirukote honek azpimarratu nahi izaten du, musika estilo honetako talde gehienek ez bezala, euren hitzetan giza arazoak salatu eta islatzen dituztela, ohikoak diren harropuzkeria merkeetan jausi gabe.

Badakizue! Gaur bertan, Arrasateko Gaztetxean, *Servicio Secreto* mexikarrak eta talde gonbidatu gisa, Iruñeko *Asto Pituak* anarkopunkak. Ez hutsik egin!

Mugarritz Mugarri, Arrasate ezagutzen

Iazko ekimena errepikatzeko asmoz, Mugarritz Mugarri ibilaldia jarriko du abian AED elkarteak. Dena dela, aurten bestelako maiztasunarekin antolatu dute, hiruhilabetean behin izango baitira gutxi gora-behera mendi ibilaldiak.

Lehenengo mendi buelta urriaren 24an izango da. Goizeko 08:30ean Arbolapetatik irtenda, autoz abiatuko dira Udalara. San Esteban eliza ikusi ostean, Besaiderako bidea hartuko dute gero. Gaseagako karobiak eta Aspe baserriaren ondoko elurzuloa ere bisitatuko dituzte, eta Kapirixo elkarte-ko adituen azalpenak entzuteko aukera ere izango da. Meatzerekarako bidea hartuta, sasoi bateko meategiak ere ikusiko dituzte, eta baita Salburri baserria ere. Izan ere, beserri horrek leizezuloa du barruan, harri baten ertzari lotutako baserria baita.

Egitasmo honen antolakuntzan diharduen Itxaro Artolak jakinarazi digunez, gainera, "mendian ibiltzen ohituta ez dagoen jendearentzako ere ibilbide aproposak izango dira Mugarritz Mugarri ekimenekoak, eta horretaz gain, edozein adinetako jendeari zuzendutako ibilaldiak izango dira".


Urriaren 24an, beraz, Arrasate ezagutzeko lehenengo hitzordua. Itzulera ordua eguerdirako dago jarrita.



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxe: 943 77 11 20



**Alkoholarekin arazoak
dauzkazu? Agian,
"Alkoholzale Anonimoek"
lagundu ahal dizute!!**

Alkoholzale Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa) • Tel.: 943 61 93 38

ANTONIO MURILLO ("GAZTEAK ETA 2000. URTEA" ARGAZKI ONENA)

"Arrasaten izugarrizko maila dago argazkilaritzan"

Duela 35 urte jaio zen Arrasaten, eta arrazoitzeko gaitasuna duenetik ateratzen ditu argazkiak. Etxean betidanik izan du argazki kamera. Beharbada ordu askoren buruan lortutako esperientziak eman dio "Gazteak eta 2000. urtea" argazki lehiaketan argazki onenaren saria.

— Non ikasi dituzu argazkigintzaren sekretuak?

— Neure kabuz ikasi dut, argazki asko ikusi eta gustatu zaizkidanetan arreta jarrita.

— Lehiaketa askotan hartu duzu parte?


— Hogeiren batean. Lehenengo Arrasateko argazki rallyetan, inñauterietan egiten zirenetan. Lau aldiz eman nuen izena, eta batean lehenengo eta beste batean bigarren gelditu nintzen. AEDko lehiaketetan ere bigarren atera nuen behin, eta beste batean bilduma onenarena eman zidaten. Adena elkartearen lehiaketa batera bidali ditut orain, baina estatu mailakoa denez, zail ikusten dut.

— Argazkiak, zuri-beltzean ala koloretan?

— Argazkian adierazi nahi dudana araberak. Badago topiko bat, argazkiak zuri-beltzean askoz politago geratzen direla dioena. Hori gezurra da. Adierazi nahi denak berarekin dakar hautaketa. Dramatismoa adierazteko zuri-beltza. Koloretan, berriz, argitasuna, samurtasuna...

— Argazkiak ez dituzu bilduman aurkeztu. Zergatik?

— Ez nuen bildumarik onenaren saria irabazi nahi, bilduman argazkiak oro har onak izan daitezkeen arren,



argazki bat ere ez baita nabarmentzen. Beraz, bi argazki aurkeztu nituen koloretan (eklipsearena eta *pearcing*arena) eta bat zuri-beltzean.

— "Pearing" du izena saritu duten argazkiak.

— Esposizio ireki bat da, eta gelan iluntasuna nagusi dela, linterna batez argiztatu ditut nik hautatutako puntuak. Neska-mutil batzuk lurrean etzanda zeudela konposaketako hiru belarritako argiztatu ditut. Hiru argazkietan erabilitako gai nagusia, berriz, argia izan da.

— Zein gairen inguruan gustatuko litzaizuke argazkiak ateratzea?

— Erretratuak, Gobernu Kanpoko Erakundeen ingurukoak... Pertsonaren samina sekula ez nuke islatuko, ordea. Ez nintzateke gai izango. Gerrak, lurrikarak...

— Gustatuko litzaizuke argazkilari profesionala izatea?

— Bai, baina zaila da; Arrasaten izugarrizko maila dago argazkilaritzan.

aste gazte

■ LANA

• Añorbeko liburutegirako arduradun bat behar dute. Epea: azaroak 10.

■ IKASTAROAK

• Ekin emakume taldeak barazkizaleen sukaldaritza ikastaroa antolatu du, urrian eta azaroan, larunbat goizetan.

• Karibeko Dantzen sakontze maila. Astelehen eta asteazkenean, 19:30etik 21:30ak arte. Matrikula 4.000 pta/2.500 ikasle eta langabeentzat.

• Gaur egungo dantza eta jazz dantza ikastaroa: larunbat arratsaldetan; Arrasate Musikalen izango da ikastaroa. Matrikula 5.000 pta/3.000 ikasle eta langabeentzat.

• Hezkide Eskolak eta Urtxintxa Elkartek urteroko ikastaroak antolatu dituzte: astialdiko begiralea, astialdiko zuzendaria, ludotekak, gazte lekuak, malabare lantegia, euskara zuzpertzaila, euskal jolasak, adierazpen lantegia, heziketa berezia, hezkidetzak, drogamenpekotasunen prebentzioa eta 3. adinaren ergilea. Ikastaroak Donostian izango dira. Hainbat epe.

■ LEHIAKETAK

• Euskal esakera barrien lehiaketa antolatu du Bermeoko Gazte Informazio Zerbitzuak. Egunero kalean erabiltzen diren euskal esakerak saritu nahi dira. Epea: azaroak 30.

• Bilbao Pop Rock lehiaketa antolatu da aurten ere. Edozein taldek har dezake parte bi musika modalitateetan: pop-rock edo metal. Lanak aurkezteko epea: abenduak 31.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

"Ez nuen bildumarik onenaren saria irabazi nahi"



Programazioa

OSTIRALA 22

- 13:30** Albiste aurrerapena.
13:35 Gatza eta Berakatzu. Bixente Pagoaga sukaldariaren plater bat.
13:45 Zortziko Txikian. (errepika). Anartz Agirrek aurkezturik.
20:00-20:30-21:00 Berriak. Eguneko albisteak, Maider Osak aurkezturik.
21:30 Astebete. Maider Osak astean izandako albisterik garrantzitsuenak errepasatuko ditu.
22:00 Gatza ete Berakatzu (errep)
22:15 Soinuz Blai. Azken orduko bideo klipak. Edu Abasolok aurkeztuta.

LARUNBATA 23

- 13:30** Jolasplast, Hamaika Magazin, Mahai Inguruak, Zortziko Txikian, Soinuz Blai, Astebete.

IGANDEA 24

- 13:30** Jolasplast, Hamaika Magazin, Mahai Inguruak, Zortziko Txikian, Soinuz Blai, Astebete.

ASTELEHENA 25

- 13:30** Albiste aurrerapena
13:35 Gatza eta Berakatzu. Bixente Pagoagarekin.
13:45 Astebete (errepika)
20:00-20:30-21:00 Berriak
21:30 Mondrasport. Itxaro Zubillagak eta Xabier Urzelaik aurkeztuta.
22:00 Gatza ete Berakatzu (errepika)

ASTEARTEA 26

- 13:30** Albiste aurrerapena.
13:35 Gatza eta Berakatzu. Bixente Pagoagarekin.
13:45 Mondrasport (errepika).
20:00-20:30-21:00 Berriak.
21:30 Hamaika Magazin. Astrologia, sexualitatea, osasuna... Arantzazu Lagunillak eta Ubane Maderak aurkezturik.
22:00 Gatza eta Berakatzu (errepika)

ASTEAZKENA 27

- 13:30** Albiste aurrerapena.
13:35 Gatza eta Berakatzu. Bixente Pagoagarekin.
13:45 Hamaika Magazin. (errepika).
20:00-20:30-21:00 Berriak.

- 21:30** Aurrez Aurre. Edurne Mujikak Eugenio Otxoa Gerra elkarrizketatuko du.
22:00 Gatza eta Berakatzu (errepika).

- 22:00** Gatza eta Berakatzu. (errepika).
22:15 Soinuz Blai. Aste honetan Miren Gonzalezek emango digu musikan gertatu diren azken nobedadeen berri.

OSTEGUNA 28

- 13:30** Albiste aurrerapena.
13:35 Gatza eta Berakatzu. Bixente Pagoagarekin.
13:45 Aurrez Aurre. (errepika).
20:00-20:30-21:00 Berriak.
21:30 Ekilan. Alberto Gorritibereak zuzenduta. Juan Jose Arrieta elkarrizketatuko du, Euskadiko Kutxaren 40. urteurrena dela eta. Baita Felix Etxagibel txakolingilea eta Koldo Azkoitia Ihardun Multimedia enpresako ordezkaria ere.

OSTIRALA 29

- 13:30** Albiste Aurrerapena.
13:35 Gatza eta Berakatzu. Bixente Pagoagarekin.
13:45 Ekilan. (errepika).
20:00-20:30-21:00 Berriak.
21:30 Astebete. Asteko albisterik inportanteenak, Maider Osak aurkeztuta.
22:00 Gatza eta Berakatzu. (errepika).
22:15 Soinuz Blai. Miren Gonzalez.



Juan Jose Arrieta.



Miren Gonzalez.



Berezitasunak
 Kazuelatxoak
 Otarteko hotz eta beroak
 Arrasate Pasealekua, 33
 ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 943 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.



SOLARIUMA
 Ferrerías, 35 ARRASATE
 Tel.: 943 77 13 78

Gatzaga, mon amour

Aurrez aurre asteazkenean, 21:30

Nork ez du ezagutzen Eugenio Otxoa *Gerra*, Leintz-Gatzagako alkatea? Ezagutzen ez duenak abagune ederra izango du datorren asteazkenean, Aurrez Aurre saioan.

Bedoñara bidean dagoen Asube Azpi baserrian jaio zen Eugenio orain 48 urte. Leintz-Gatzagako alkatez 12 urte egin ditu eta, horrela segituz gero, Cuedaren errekorra hautsiko du. Gatzagarrek horixe nahi, antza, hauteskundera joan hauteskundera etorri, bera buru duen hautagaitza independentea-

ri ematen dizkiote-eta boto guztiak. Berari buruz eta Leintz-Gatzagaren gainean hitz egingo du Eugeniok Edurne Mujikarekin. Herriak azken hamabi urteotan izan duen hazkundera (demografikoa eta ekonomikoa), enpresak eta proiektuak izango dituzte mintzagai. Aipamenetan ez dira faltako Ekomuseoa eta Gaztainuzketa proiektua.

Bailarako gazte asko joaten dira Gatzagara, Eugeniok ezkon ditzan. Horren berri ere emango digu. Ala ez?



ATBk hamar urte

Hasierako laukotea



Koldo Rodriguez, ATBko aurkezle zen garaian.

Hamalau gazte aurkeztu ziren 1989ko irailean Monterronen egin zen azterketara, ATBko teknikariak hartzeko. Egun osoan zehar azterketa teorikoak eta praktikoak egiten igaro zuten. Epaimahaiari Joserra Gartzia ere izan zen.

Egun batzuk geroago lau aukeratuen izenak jakin ziren, denak Andoaingo eskolan ikasitakoak: Iban Aiesa arrasatearra, Jabi Bergarakoa, Andoni Urzelai Aretxabaletakoa eta Jasone Diaz de Gereñu eskoriatzarra. Azken hau goi mailako kirolaria zen. Atezaina jokatzeko eskubaloian. Hainbat urtean Espainiako selekzioan jokatu zuen. Eskoriatzako kirolaririk onena ere izendatu zuten.

Lehen kontratua Arrasa-

teko Udalak egin zien. Hori egin bezain laster, lanean hasi ziren laurak, IMik Arrasate Pasealekuan zituen bulegoetan.

Lehen lana izan zen Arrasateri buruzko irudi artxibo bat egitea, telebista hasi orduko erabiltzeko moduan egon zedin. Arrasateko bazter, kale eta txoko guztiak aritu ziren grabatzen, Eskoriatzako Irakasle Eskolak utzitako tresneriari esker.

Urriaren erdialdean, Gobernu Batzordeak bi partida garrantzitsu onartu zituen ATB abiatzeko: etxea egokitzeko 6.300.000 pezeta eta tresneria erosteko beste 7.000.000 pezeta. Hasteko Super VHS formatoa aukeratu zen.

Gatza eta Berakatz

Sukaldaria: Bixente Pagoaga (Mitartegarai jatetxea)

NOIZ	PLATERA
Astelehena 25	Babarrunak
Asteartea 26	Idar salteatuak
Asteazkena, 27	Oilaskoa
Osteguna, 28	Bakailaoa patatekin
Ostirala, 29	Gatzatua

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

LASER DEPILAZIOA

Itaca Zentru Mediku eta Estetikoa



AZKARRA, BEHIN BETIKOA, MINIK GABE

Kontsulta eta aurrekontua konpromisorik gabe.

Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 RPS. 492/98

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxebizitza salgai Musakolan. 15 milioi. Tel.: 943 79 64 67.

• Madalena kaleko 13an, hiru gela, sukalde-jantokia, egongela, komuna, trastegia eta ganbara duen etxea saltzen da. Tel.: 630 39 36 21. 21:00-21:45.

• Arrasateko erdialdean etxebizitza salgai. Lau gela, bi bainu, egongela, sukalde eta igogailua. Tel.: 609 40 03 96.

• Aretxabaletan etxebizitza salgai. Tel.: 639 26 62 78.

• Etxebizitza salgai Zigorrolan. Hiru logela, sukalde, komuna, egongela, berogailua eta gas naturala. Tel.: 943 77 04 61.

3. Errentan emateko

• Bi logelatako etxea alokagai, San Andresen. Tel.: 943 79 28 63.

• Etxebizitza alokagai ikasleentzat. Tel.: 943 79 39 02. Gauetan deitu.

• San Bizente kalean 60 m²ko etxabea alokatzen da, berogailua eta guzti. Erabilerara askorako baliagarria. Tel.: 943 79 18 95.

4. Errentan hartzeko

• Ikasle batek gela bat alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 93 14 02 68.

• Etxebizitza behar dut alokatzeko, Arrasaten. Tel.: 606 06 96 75.

• Ikasle batek gela bat alokatuko luke etxebizitza batean, Arrasaten. Tel.: 943 79 47 85.

• Gela bat alokatu nahiko nuke. Tel.: 943 79 03 99.

5. Etxeak osatzeko

• Bi neska behar ditugu Leioan, etxebizitza osatzeko. Tel.: 945 45 52 67.

• Mutil bat behar dugu etxebizitza osatzeko Makatzenan. Tel.: 943 77 12 42. Iban. Lan orduetan.

GARAJEAK

10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press-ek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Altamiran dagoen 59 m²ko lokala salgai. Tel.: 943 79 66 62.

14. Errentan emateko

• Erdialdean dagoen taberna alokatu edo eskuz aldatzeko prest gaudete. Tel.: 617 37 42 37.

• Gimnasio bat errentan jartzen da. Tel.: 943 77 07 06.

• Garaje itxia alokatzen da, Erguin auzoan. Tel.: 943 79 13 97.

LANA

17. Eskaintza

• Ospital laguntzaile diplomaduna prest zaharrak eta gaixoak zaintzeko. Auto handia daukat. Tel.: 609 77 01 33.

• Neska prest garbiketa lanak egiteko, orduka. Tel.: 943 71 53 74.

• Emakumea prest pertsona nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko. Tel.: 600 60 05 31.

• Neska euskalduna prest dendan saltzaile moduan lan egiteko. Esperientziaduna. Tel.: 943 79 37 68.

• Neska euskalduna umeak zaintzeko prest, arratsalde. Interesatuok deitu 17:00etatik aurrera. Tel.: 943 75 22 74. Itziar.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Pertsona nagusiak zaintzen dituganean. Tel.: 610 01 06 10. Belen.

• Esperientziadun emakumea etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 943 79 11 46. Larunbat eta igandeetan.

• Mutila prest publizitate edo gutunen banaketa egiteko. Tel.: 943 79 11 46 eta 943 79 98 83.

• Neska gaztea prest asteburuetan lan egiteko. Tel.: 943 79 42 34.

18. Eskaerak

• Iturgintzan esperientzia duen pertsona bat behar da. Deitu lehenbailehen. Tel.: 943 77 01 19 edo 943 79 19 19.

• Neska bat behar dut umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Autoa behar da. Tel.: 943 71 50 92.

• Esperientzia duen ile apaintzailea behar da, Deba Garaian lan egiteko. Deitu 607 42 84 79 telefonora.

• Neska bat behar da sukaldean lan egiteko. Titulu edo esperientziaduna. Kontratoa egiteko aukera. Tel.: 943 79 11 15.

• Pertsona bat behar da Web orriak programatzen dakiena. Lan zehatz bat egiteko. Tel.: 629 41 59 47.

• Pertsona bat behar da Aramaion, pertsona nagusiei gaeuz laguntzeko. Tel.: 616 99 86 09.

• Bordatuak egiten esperientzia duen pertsona bat behar da. Arrasate ingurukoa. Tel.: 943 79 10 43.

• Esperientzia duen jostuna behar da, Arrasate ingurukoa. Tel.: 943 79 10 43.

• Neska bat behar da arratsalde denda batean lan egiteko. Euskaraz egitea ezinbestekoa da. Interesatuok bidali zuen datuak 259 posta kutxatilara.

• Pertsona bat behar da umea zaintzeko. Tel.: 943 77 17 97 eta 639 45 85 08.

• Pertsona bat behar da sukaldean lana egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Abokatua behar da, 35 urtetik beherakoa. Esperientzia ez da beharrezkoa. Curriculuma Arrasateko 54 postakutxatilara bidali.

• Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 10 22.

• Zerbitzaria behar da asteburuetarako. Tel.: 945 44 50 86.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako eskola partikularrak ematen dira, euskaraz edo gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

• Esperientziadun neskek OHoko eskola partikularrak emango lituzke euskaraz nahiz gaztelaniaz. Tel.: 943 77 17 20 eta 943 79 25 09. Ana.

• Gitarra elektrikoko eskola partikularrak ematen ditut, hutsetik hasita, maila guztiak. Tel.: 666 69 28 69. Jose Luis.

• OHoko eta DBHko eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 40 57. Ane.

• Ingeleseko eta OHoko eskola partikularrak emango nituzke. Euskaraz eta gaztelaniaz. Tel.: 943 79 94 98.

• Eskola partikularrak emango nituzke, maila guztietan, goi batxilergoa barne. Tel.: 943 79 48 09. Itziar.

21. Eskaerak

• Euskara irakaslea behar da goi mailako eskolak emateko, astean behin edo birritan. Tel.: 943 76 26 57.

• Latinezko eskolak hartzeko irakasle bat behar dut. Tel.: 943 79 81 73. 20:00etatik aurrera.

• DBHko matematikako eskolak hartuko nituzke, 3. mailan. Euskaraz. Tel.: 943 79 17 51. Itsaso.

MOTORRA

23. Saldu

• 1998an erositako motorra salgai, BI-BJ. 11.200 Km. Kutxa, bi burubabes, giltzarrapoarekin. Prezioa: 375.000 pta. Tel.: 607 44 38 10.

• Yamaha XT 350 salgai. Txuri-gorria. BI-BJ. 11.200 Km. Kutxa, bi burubabes, giltzarrapoarekin. Prezioa: 375.000 pta. Tel.: 607 44 38 10.

• Yamaha XJ 600. Egoera onean eta ITV pasatuta. Merkea, bi maleta opa-

ri. Tel.: 943 79 26 35. Eguerdi eta gauean.

• Motor berri-berria salgai. Honda NTV 650, 11.000 kilometro, estra eta guzti. Tel.: 943 79 20 40. 20:30etik aurrera.

• Automobila salgai. Seat Ibiza 1992koa, egoera onean. Tel.: 943 79 23 58.

• Autoa salgai, Renault 1.9. RT Diesel. 18 hilabetekoa eta hainbat osagarrarekin. Oso egoera onean. Tel.: 609 46 44 12

DENETARIK

26. Saldu

• Lanean ari den negozioia eta furgoneta salgai. Interesatuok deitu 656 72 24 53 telefonora.

• Spaniel-Breton arrazako txakur kumeak salgai. Interesatuok deitu 943 79 19 63 telefonora.

• Kanadiar kanpin denda salgai, abanze eta guzti. Oso merke. Tel.: 943 79 23 69. Gauez.

• Auto gainean eramateko kutxa salgai. Tel.: 943 79 23 69. Gauez

• Pigiñi esku soinua salgai, 120 eta 58 botoiduna, egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 70 28.

• Fagor markako izozkailu etzana salgai. 300 litro. 20.000 pta. Tel.: 943 79 58 79.

• Logela bat saldu nahi dut. Gerezio egurra, 1,35eko ohea, armairu handia, bi mesilla eta komoda bat. Berri-berria dago eta itxura klasikoa du. 60.000 pta. Tel.: 943 71 42 19.

• Esku soinua salgai, 96 bajukoa. Egoera onean, oso prezio interesgarrian. Tel.: 943 79 73 18.

• Salomon Evolution eskiak salgai. Egun batean erabilia. 205 neurrikoak. Fijazio eta guzti. Prezio onean. Tel.: 943 79 26 16. 13:00-13:30. Tel.: 943 79 68 31. Urtzi.

• Behin bakarrik erabilitako 39-40 zenbakiko Boreal mendiko botak salgai, handiak ditut eta. Onak, Gore tex. Kranpoiekin erabilgarriak. Tel.: 943 79 55 83.

• Chaman piragua salgai. "Compartimento estanco" du, txaleko berezia, pala, "cubrebañera"; autoan eramateko barrak prezioaren barruan. 50.000 pta. Tel.: 943 77 01 74. Felix.

• Baserriko kiwiak salgai. Tel.: 943 79 97 84.

27. Erosi

• Esku soinua erosi nahiko nuke. Pigiñi 100. Tel.: 943 79 53 36, arratsaldez.

31. Galdu

• Zubillaga eta Arrasate bitartean sabueso arrazako txakurra galdu dut. Hiru hilabete dauka, gorrixka kolorekoa eta lepokoa darama. Tel.: 943 79 11 36 eta 943 79 48 02.

• Irailaren 19an Besaideko monumetoaren ondoan Olimpus MY-1 argazki kamera bat galdu genuen. Ezerjakinez gero, deitu mesedez 943 79 21 50 telefonora.

33. Bestelakoak

• Jar zaitez sasoiaren energia unibertsalaren bidez. Era guztietako gaitxotasunak, estresa eta beheraldiak barne. Deitu konpromisorik gabe. Tel.: 943 79 45 74.

• Musika talde batek lokala behar du entsaiatzeko. Tel.: 943 79 81 19.

HARREMAN Denda Solidarioa


Asia, Afrika eta Hegoamerikako produktuak zure esku. Artisautza, textila, jakiak, kafea, rona, tea,...

Etorri eta egizu zure EROSKETA SOLIDARIOA!

Deba Garaiko ONGek bultzatua



**Leku berrira
aldatu gara
Arrasateko
Eroski
Merkatalgunean.**





Harrobi ondolan zegoen San Joxepe basean izandago aterata argazki hau. 1947. urtea zen. *Axeritar*rak, *Iraolatarr*ak eta *Arriarandarr*ak hantxe elkartu ziren ezkontza bikoitza ospatzeko. Izan ere, Bedoñabe Erdikoa baserriko anai-arrebak ezkondu ziren orduan.

Ezkondu ziren bikoteak honakoak ziren: ezkerretik hasiz gero, Pilar Iraola da lehenengo emaztea. Haren ondolan, ezkerrean, Jose Antonio Arregi senarra dago. Ezkerretik jarraituz gero, bikote honen aita eta ama pontekoak daude: Luzia Arregi eta Juanito Iraola.

Beste andregaiak Dolores Arregi da. Eskuman duena,

senarra, Jose Biain da, Mazmela elizatekoa. Hauen ondolan, eskuinerantz, aita eta ama puntakoak daude: Rosa Aranburu eta Damian Arregi.

Lehenengo ilaran agertzen diren haurtxoak, berriz, eskuintetik hasita: Mari Mertxe Arregi, Arantza Arregi eta honen anaia txoa. Ondolan, Xeli Arregi, Mari Mertxe Mendizabal eta Angel Arregi. Besoetan

dagoen txikitxoena, berriz, Rosa Mari Arregi da eta aurreneko ilaran ezkerretik hasita altzoan dagoen beste mutikotxoak, Alvaro Arregi, orain 15 urte Arrasateko alkate izandakoa.

Argazkia: JM Lasagabaster.
Berriemalea: Axeritarra.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Gozatu udaz urte osoan zehar



NaturGas

 **902 123 456**
NaturGas, Euskadiko gasa



Sociedad de Gas
de Euskadi, s.a.

Grupo EVE

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Errealitate
bihurtzen diren
ilusioak



FAGOR SARIA 1998. URTEKO SUKALDEARI

FIBLERA IRITZITAKO PROIEKTUA

"KATALOGOAREN BAILIABIDEEN ERABILERARIK ONENA"

DONATZAILEA: IKER



FAGOR
ERABILKETA ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43
BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

FAGOR

